goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-11-30
EGUBAKOITZA
532. ZENBAKIA
12. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

'Peter Pan' euskaraz Bergaran

200 bat lagunek parte hartuko dute | 31

Karteleko irudi nagusia. | GOIENA

"Zikinagoa eta biziagoa" izango da santamasetako txerria aurten | 11

Oñatiko gaztetxea abenduaren 22an inauguratuko dute | 16

Batzokiaren 100. urteurrenean, Urkullu lehendakari-gaia Aramaion izango da | 26

GAZTE-GAZTE ETA ARIN-ARIN ETORRI DIRA

Bergarako Trinitate monasterioak bizilagun berriak hartu ditu: San Juan eta Santo Domingoren 19 ahizpa, europarrak gehienak | 10

Mojetako batzuek korrika egiteko ohitura dute, abitu eta guzti, baina korrika egiteko zapatilekin. | ARRITXU BARRUSO

Euskaraz bizi izatea eskubide izan dadin, kalera

Anoeta estadiotik irtengo da manifestazioa, bihar, zapatua, 17:00etan | 4

Aldarrikapen-izara. | GOIENA

Arrasateren eta Bergararen arteko derbia, eskubaloian | 28

Oñatiko hiru ikastetxeek hezkuntza mahaia eratu berri dute

Elkarlanean jardungo dute eskolen gaineko hainbat arlotan | 15

SINADURAK

IGOR ARENAZA | 5

5 | XABIER URTZELAI

TXOMIN AZPITARTE | 24

25 | PATXI KORTABARRIA

MIKEL IRIZAR | 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 5 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Merkatariek urte zaila hobetu gura dute, Gabonekin

Erosketak herrian egitera animatzen dute; lehiaketak eta promozioak antolatu dituzte | 2

Gabonekin ondo bukatu nahi dute merkatariek 2012. urte zaila

- Lehiaketak eta promozioak antolatu dituzte
- Erosketak herrian egitera animatzen dute
- Herriko dendak gehiago baloratzen direla diote

Txandako dendetan erosteak oparia dauka, Aitor Ugartek adierazten duen moduan. | LEIRE K

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Krisiak dirauen arren, ia familia guztiek gehiago gastatzen dute Gabonetan. Bada, gastu hori herrian, bailaran gera dadin animatu gura dute Debagoieneko merkatariek, eta, horretarako, urtero bezala, ekintzak eta promozio bereziak prestatu dituzte bailarako lau merkataritza-elkarteek; batik bat, lehiaketak eta bestelako pizgarri batzuk jendeak herrian bertan erosi ditzan opariak, apaingarriak, janariak... Horrekin batera, kaleetan Gabonetako giro alaia sortzen lagunduko dute, apaingarri bereziekin eta erakusleiho jantziekin.

Dendari elkarteek Gabonak aprobetxatu gura dituzte 2012 zaila ondo bukatzeko. Oñatiko Txanda elkarteko Aitor Ugartek dioenez, "iraila eta azaroa nahiko txarrak izan dira, baina abendurako esperantza handia" dute dendariek. Aretxarteko presidente Alberto Asensioren esanetan, "beti igartzen da Gabonetan jende gehiago dabilela herrian".

Bergaran, 12 otzara

Promozio hauek egingo dituzte dendari elkarteek: Arrasaten, 100 otzara zozketatuko dituzte erosleen artean. Bestetik, komertzioek argiztapen berezia ipiniko dute.

Bergaran, Bedelkarrek marrazki lehiaketa antolatu du, lehenengo aldiz, eta hainbat oparitxo emango ditu. Bestalde, Gabonetako 12 otzara zozketatuko ditu, berritasun gisa. Horrez gain, Bedelkarren txartela erabiltzen dutenen artean 500 euroko sari bat eta 200 euroko bost zozketatuko ditu.

ARRITXU BARRUSO

GERTUKOAK Harategietan, Aretxabaletako Iosun bezala, solomillo, txuleta eta bildots asko saltzen dituzte Gabonetan. Iosu harategiko ugazabek diotenez, bezeroak gertuko egin dira, eta dendan badakite zer eskatuko duten.

ARRITXU BARRUSO

JENERO ASKO Jantzi-dendetan ere erosketa askoko garaia dira Gabonak, eta Bergarako Mirari dendako Mari Carmenek "arropaz beteta" du denda, urteari bukaera ona emateko itxaropenarekin. Neguko arropak saltzea espero du.

ARRITXU BARRUSO

OPARI BILA Opari-dendetan bezeroen zain daude; Arrasateko Beinke dendako Kristinak "denetariko" aurrekontuak dituzten erosleak izaten ditu. Krisia igarri duela dio, baina Gabonetarako itxaropentsu dago.

ORTABARRIA

Debagoieneko lau dendari elkarteak.

Oñatin, iaz arrakasta handia izan zuen lehiaketa antolatu du berriz Txandak. Hala, Atzeko kaleko lokal baten erakusleihoa ipini du, batetik, jateko produktuekin eta, bestetik, denetariko produktuekin; bada, lehenaren pisua eta bigarrenaren balioa asmatu beharko da. Txandako dendetan egiten duten erosketa bakoitzeko, parte hartzeko txartela emango diete.

Aretxartek, UDArekin batera, gaur bertan emango du buzkantza -jana. Bestalde, gaztaina-saltzailea ekarriko dute hiru egunean, eta abenduko bezeroen artean hiru otzara eta, lehen saridunarendako, horrez gain, bidaia bat ere zozketatuko dituzte.

Kanpora joatea "ez da doan"

Urte txarra izan da kontsumitzaileondako eta merkatariondako, eta Gabonetako argiekin "urtea bukatu dela baina beste bat hasiko dela" adierazi gura dute Ibai -Artekoek, Jesus Mari Elkoro elkartekidearen berbatan. Urte berri horretan "inork ez du aparteko aldaketarik espero", onartzen digu berak. Hala ere, "etorkizunera begira esperantza pixka bat" izatera animatu gura du. Merkatariek onartzen dute jendeak oraindik kanpora joateko ohitura izango duela, baina "joera hori aldatzen" dagoela uste du Elkorok: "Jendea konturatu da erosketak kanpoan egitea doan ez dela, eta gehienetan, etxetik gertu, tratu pertsonalarekin eta dendari ezagunekin, gauza berberak topatzen direla eta, batez beste, irabazten irteten dela". Arrasateko merkatariek lortu dituzten kalitate ziurtagiriek "adierazten dute komertzioa arduratzen dela bere eginkizunaz eta gero eta profesionalagoak garela".

Txandako Aitor Ugarteren iritziz, "orain 10 urterekin konparatuta, oraingo dendak kalitate handiagokoak dira, eta bertan gauden profesionalok zerbitzu hobea ematen dugu. Profesional hobeak, denda politagoa, aukera gehiago, produktu hobeak... baldin badaude, guk gura duguna da jendea kanpora ez joatea, ahal den gehien herrian gelditzea".

ESANAK

"2013ari esperantzaz begiratzera animatu gura dugu"

JESUS MARI ELKORO | MERKATARIA

"Gero eta hobeak gara, eta helburua da jendea herrian gelditzea"

AITOR UGARTE | MERKATARIA

Ederki bizi dira (gizonezko) batzuk, beste (emakumezko) batzuen kontura! Zainketa duinak guztiontzat: gizon nahiz emakumeontzat.

#EgitekoAsko
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana

Gipuzkoa BERRIA

berdintasuna
egiteko asko
www.berdintasuna.tv

Diputazioaren aurrekontuaren %48,10 politika sozialetarako

A.T./ U.M. | BERGARA

Arrasaten izan ostean, Bergaran izan dira Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak. 25 bat lagunen aurrean (tartean Bergara eta Arrasateko udal ordezkariak), Larraitz Ugarte bozeramaileak eta Iñaki Errazkin Ingurumen diputatuak aurtengo balantzea egin eta 2013ko aurrekontuaren gainean jardun zuten.

Aurtengoari buruz Ugartek azaldu zuen urte "oparoa" izan dela. Lorpen nagusien artean, besteak beste, aipatu zuen politika sozialetako laguntzak mantendu ahal izan dituztela, Madrilgo murrizketei aurre egin ahal izan dietela, eta dependentzia legeari ezarritako murrizketak ez direla Gipuzkoan aplikatuko; erreforma fiskala ere nabarmendu zuen Ugartek, garraio publikoari dagokionez txartel bakarra martxan jarriko dela ere aipatu zuen eta gipuzkoarrek autobideetan hilero 25 euro baino gehiago ez ordaintzeko neurria.

Politika soziala inartu

2013ko aurrekontuari dagokionez, berriz, aurreikuspen nahiko onarekin egindakoa da, Ugarteren hitzetan. Beharrezkoak ez ziren hainbat gastu murriztuta, gizarte politika indartu ahal izan dute, Diputazioak hori du-eta 2013rako helburu nagusietako bat: %48,10 politika sozialera bideratzea. Eta besteak beste, garrantzia eman diote Deskargarko obrari.

Iñaki Errazkin, Larraitz Ugarte eta Oier Narbaiza, aurkezpenean. | A. TXINTXURRETA

Politikaz eta gizarteaz jardungo dute Bergarako gaztetxean

U.M. | BERGARA

Atzo ezkero abian dira Debagoieneko IV. Jardunaldiak Bergarako gaztetxean, domekara arte (aurreko urteetan Arrasaten eta Bergaran izan ziren). Gaur, egubakoitza, *Zer daukagu frackinaren aurka?* hitzaldia eta *Ipar Koreari buruzko beste ikuspegi bat* solasaldia, azken hori Ipar Korean bizi izan den euskal herritar baten eskutik. 18:00etan hasiko da saioa. Bukatutakoan afaria egingo dute.

Elikadura, presoak, gaztetxeak

Biharko, berriz, *Elikadura burujabetza*, *Kapitalismoari kritika* eta *Herrien erantzuna* aztertuko dute Paul Nicholsonen eskutik; Josu Uribetxeberria preso arrasatearraren kasuaren gainean jardungo dute Herrira elkartekoek; Antzuola eta Oñatiko gaztetxe berriak aurkeztuko dituzte, eta oro har, Euskal Herriko gaztetxeen azterlana aurkeztuko dute. Turboshit (Bergara) eta Zuen Azkena (Oñati) taldeen kontzertuekin borobilduko dute eguna.

Eta domekan, goizean AHTren obrak bisitatuko dituzte eta arratsaldean, Joseba Azkarraga MUko irakasleak *Euskal Harriak* liburua aurkeztuko du.

Paradisua eta katuak
(liburua - DVDa)
Bernardo Atxaga
Musika: Jabier Muguruza
Lehenengoz eta behin, kontaera bat da. Ez ordea tonu edo forma beti berdinekoa, osagarri baititu hainbat atal berezi: ipuinak, poemak, pasarte komikoak eta gogoetak. Batzuetan, katu kontuak aipatzen dira; bestetan, adineko andre batenak edo zeharo pozik dagoen apaiz batenak....

PAMIELA argitaletxea
www.pamiela.com

Euskaraz bizi nahi dut leloa duen izara, Aretxabaletako udaletxean. | MIRARI ALTUBE

Euskaraz bizi izateko eskubide aldarria ozen entzungo da Donostian

Manifestazioa 17:00etan aterako da, Anoeta estadiotik, 'Euskaraz bizi nahi dugu' leloarekin, bihar

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Leloak ondo jasotzen duen moduan, euskaraz bizi nahi dugu. Adieraziko duguna da bagaudela herritar talde bat euskaraz bizi nahi duguna, horretan determinazioz aurrera egiteko asmoa daukagunak; uste dugu, gainera, gero eta gehiago garela euskaraz bizi nahi dugun herritarrak eta nahiko genuke larunbata izatea horren adierazle bat. Harrotasunez gure nahi hori adieraziko dugu, kalean adieraziko dugu eta ulertzen dugu aurrea begirako lanean inflexio puntu bezala edo berrindartze puntu bezala".

Hala azaldu du Saioa Rodriguezek, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko komunikazio arduradunak biharko, zapatua, Donostian egindako deialdia: 17:00etan Anoetako estadiotik aterako da manifestazioa *Euskaraz bizi nahi dugu* leloarekin.

Debagoienetik autobusak antolatu dituzte bertara joateko. Eta mezu horri oihartzuna emateko ekitaldiak egin dira asteon, eta baita lehenago ere, gure ibarreko herrietan (ikus *Herriak* saila). Balkoi askotan ikusgai dago, esaterako, *Euskaraz bizi nahi dut* dioten izarak.

Horrez gainera, gogora ekarri beharra dago abenduaren 3an dela Euskararen Nazioarteko Eguna eta horren bueltan ere makinatxo bat ekitaldi antolatu dituztela gure ibarreko herrietan.

Une aproposa

Zapatuko manifestaziora bueltatuz, hura inflexio puntu moduan ikusteaz gainera, Kontseiluak uste du gaur egungo "testuingurua ezin aproposagoa" dela "euskararen normalizazioan behar ditugun aldaketak emateko".

Gehiengo abertzalea

Rodriguezek iraultza beharra azpimarratu du: "Azken garaiko hainbat neurketa eta ikerketek emandako datuak ez dira guk nahiko genituzkeenak, eta ikusten duguna da iraultza eman behar dela hizkuntza politiketan. Egindako lana baloratzen dugu; uste dugu aurrerapausoak eman ditugula euskararen normalizazioan, bereziki euskalgintzak eta herri mugimenduak, eta noski herritarrek egindako lanari esker izan dela, baina ez dela nahikoa izan, eta behar dugula hizkuntza politikak irauli.

Horretarako, batetik Euskal Herriari dagokionez zabalduta dagoen prozesuari begira hizkuntzarenak eduki beharko luke leku bat, eta batetik, horregatik esaten dugu unea aproposa dela; eta bestetik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari dagokionez, Legebiltzar berria osatuta, gehiengo abertzalea izango denez, iruditzen zaigu erabaki ausartak hartzeko egoeran egongo garela. Eta gainontzeko herrialdeetan ere, euskaraz bizi nahi duen herri horrek ere eskaera egin du, 2010ean Nafarroan egin genuen manifestazioan eta 2012ko martxoan Baionan egindakoan. Beraz, ikusten duguna da herri bezala ere, hizkuntza komunitate bezala ere, aurrerapausoak emateko aukerak edukiko ditugula".

"Inoiz baino beharrezkoagoa"

Bestalde, biharkoarekin bat eginez, Estepan Plazaolak, Goiena Komunikazio Taldeko lehendakariak adierazi du "gaur inoiz baino beharrezkoagoa" dela "euskaraz bizitzeko hautua egitea", (ikus 5. orria).

Ospitale-guneko doako aparkalekua atzo, eguena, zabaldu zuten

U.M. | ARRASATE

Debagoieneko Ospitalearen eta Arrasateko anbulatorioaren inguruan 63 aparkaleku berri daude erabilgarri atzo ezkero. Hain justu ere, lur azpiko aparkalekua egokitu dute, ospitale berriaren bigarren sotoan.

Doako aparkalekua da, ospitale ondotik du sarbidea, tailerren ondotik, zehazki, eta honako ordutegiarekin funtzionatuko du: 06:30etik 23:30ak arte.

Kartel iragarlea, argiarekin

Aparkalekuan lekurik badagoen edo beteta dagoen adierazten duen argizko kartela ere ipini dute aparkalekuko sarbidearen aurretik, errepidetik ikusteko moduan.

Horrez gainera, botoi edo sakagailu bat ere ipini dute aparkalekuaren sarreran, parkinera sartzeko barrera zabaltzen duena. Hori bai, botoi horrek ez du barrerarik zabalduko baldin eta aparkalekuan leku librerik ez badago edo momentu horretan barruko ibilgailuren bat irteten bada. Izan ere, errail bakarra du aparkalekurako sarbideak eta kontu handiarekin ibili beharra dago. Justu horrexegatik semaforoa ere ipini dute.

Eta horrez guztiaz gainera, kamera bidezko telebigilantzia sistema ere badu parkingak

Gizonezkoa atxilotuta Arrasaten, ustez tratu txarrak eragiteagatik

Eguazten gauean Arrasateko Udaltzaingoak Ertzaintzari tratu txarren gaineko kasu baten abisua helarazi zion. 23:30 inguruan Ertzaintza iritsi zenean, emakume batek kontatu zien bikotekideak, 35 urteko gizonezkoak, ezpainetan zauria eragin ziola eta sukaldeko altzarien kontra bultza egin ziola, eta, horren ondorioz, bizkarrean kolpea hartu zuela. Herrizaingo Sailaren arabera, gizonezkoa etxean bertan zegoen, eta emakumeak esandakoa onartu egin zuen. Hala, emakumea Debagoieneko Ospitalera eraman zuten eta gizonezkoa, berriz, atxilotuta.

ZABALIK

IGOR ARENAZA
http://goiena.net/iritzia/

Zein elikatuko dut! Eta zuk?

Badauzkat mila proiektu barruan; batzuk atzoko, beste batzuk gaurko eta asko jota azkenak biharko. Ez dakit proiektuak diren, nire ilusioak ote diren, onak edo txarrak diren... Zernahi direla laguntzen didate, batetik, momentu honetan nor naizen jakiten, nor izatera heldu nahi dudan argitzen, zein bide hartu behar dudan hausnartzen, eta bestetik, nire beldurrak azaleratzen, nire sinesmenen sustraiak eztabaidatzen, Ai, zein gogorrak diren! Borroka da, eta ez makala. Baten batek esan zuen: "Nire bizitzan arazo asko eta asko izan ditut; gainera, haietako batzuk egiak ziren". Honek istorio bat kontatzera narama:

Bazen behin, Gabonen bueltan, suak sortzen zituen garren berotasunean aitona bat ilobekin jolasean. Halako batean ilobak batu, eta gaztetako joan-etorrien inguruan ipuina kontatu behar ziela esan zien. Umeek beti zituzten gogoko aitonaren gaztetako istorioak; han hasi zen:

"Umiltasuna, laguntasuna, umore ona, esfortzua..."

"Nik zuen adina nuela banituen barruan bi otso handi eta bortitz. Biak beti borrokan, bata bestea menperatu nahian, itzelak izaten ziren euren arteko egonaldiak; batak, umiltasuna, laguntasuna, umore ona, esfortzua eta beste hainbat gauza on zituen; besteak, ordea, berekoikeria, amorrua, haserrea, irainak, hainbat izaera maltzur zituen. Gatazkak ezin zuen betiko iraun, batak edo besteak, onak edo txarrak, bietako batek garaile irten behar zuen, baina biak ziren erraldoiak. Orduan aitona isildu egin zen, isilunea luzatuaz, eta umeen egon ezina areagotuz joan zen. Azkenean, Manexek, ilobetatik zaharrenak, egoera jasan ezinik aitonari galdetu zion: "Aitita, bietako nork irabazi zuen, bada?". Aititak isilunea pixka bat gehiago luzatuaz eta iloben arreta erakarri nahian zera erantzun zion: "Nik jaten ematen nionak!".

Nik gaur, orain, otso ona gura dut elikatu, umiltasuna, laguntza, konpromisoa, ahalegina.... alegia, M. Proustek zioen bezala, "bidaietan benetako aurkikuntza ez da lurralde berriak ezagutzea, gauzak beste begi batzuekin ikustea baizik".

USTEAK USTE

XABIER URTZELAI | xurzelai@goiena.com

Tinta alferrik galtzen

Hi, oingo asteko *Usteak uste* idatzi biher dok". Ño, eta zer daukat, bada, kontatzeko? Palestinarren gainean egongo da zer esan, edo, hain zuzen, azkenaldian kameren fokuak hara bideratu dituztelako Sirian egiten dabiltzanaz. Aznarrek aurkeztu du autobiografia, edo Kataluniako hauteskundeak, etxeetako desjabetzeak, murrizketak, U-12an Bilbon izango den elkarretaratzea... Ez, pisuzko kontu bati heldu nahi diot, gauza serioa: Lobato jauna, ulertzekoa da telebista interesak direla-eta pilotu asturiarraren alde egin behar izatea, baina hortik-eta haren *club de fans*-eko presidente bilakatzera saltoa dago. Esan dut. Barkamenak, denoi, tarte hau, eta tinta, alferrik galtzeagatik.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/

ADIERAZPENA

ESTEPAN PLAZAOLA, GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEKO LEHENDAKARIA

Euskaraz bizi nahi dugu

Komunitate elebakarretako hiztunek ez dute, normalean, beren hizkuntzaren aldeko aldarririk egiten. Pentsatu beharrik barik, barne gatazkarik barik, ateratzen zaie beren hizkuntzan jardutea. Eskatu beharrik barik jasotzen dituzte zerbitzuak hizkuntza horretan.

Euskaldunok, aldiz, diglosia egoeran bizi diren beste komunitateetako hiztunek bezala, barne-gatazkaz eta, hainbatetan, sufrimenduz bizi izan dugu hizkuntzaren gaia.

Barne gatazka horrek, eta hainbat kasutan bizi izandako gutxiespen eta umiliazioek, norbere hizkuntzari uko egitera, eutsi eta transmititu nahi ez izatera eraman ditu urteetan hiztun asko.

Baina, aldi berean, asko, milaka, dira herri honen berezko hizkuntzari eusteko, zabaltzeko, indartzeko... hautua egin dutenak. Neurri handi batean, horiei esker dirau oraindik euskarak bizirik.

Gaur egunean, euskaldun guztiok elebidun edo eleaniztun izanik, inoiz baino behar handiagoa dugu hautu hori berresteko: "Euskaraz bizi nahi dugula" esateko. Joxe Azurmendik dioen moduan, "gaur eta hemen, euskararen komunitate deseginduan, euskalduna izatea bizi-proiektu bat da, euskaldunen komunitatearen alde posizionatzeko erabaki bat".

"Euskaraz bizi nahi dugu" horrek euskaldun bakoitzaren eta euskaldunen komunitatearen hautua eta konpromisoa adierazi behar du, lehenik: sentimendu hutsetik harago, etxean, kalean, lanean, kultur produktu eta hedabideen aukeraketan... euskara lehenesteko konpromisoa, euskara norbere bizi-proiektuaren partetzat hartzeko determinazioa.

Baina "Euskaraz bizi nahi dugu" hori bada erakundeen eta gizartearen aurrean egiten den aldarrikapena ere, oraindik ere, euskaraz bizi nahi duenak gauzak zail dituelako hainbat esparrutan, baita guztion zergaz eskaintzen diren zerbitzu publikoetan ere. Oraindik ere euskalduna bigarren mailako hiritar sentitzen delako hainbat gunetan.

Eta, aldi berean, bada eskari bat: urteotan eraiki diren euskarazko egiturei eusteko eskaria, guztion ondaretzat hartzen dugun hizkuntzaren biziberritzea guztion ekarpenez bideratzekoa, bizi ditugun garaiotan euskararen normalkuntzaren zama lehendik ere gehien aportatzen duten militanteen bizkar ez uztekoa...

"Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da euskaraz bizitzeko hautua egitea"

Euskara beren bizi-proiektutzat sentitzen dutenen komunitate horretako kide izanik, Goienak atxikimendua agertu nahi dio abenduaren 1ean Kontseiluak deituta Donostian izango den manifestazioari eta bertan parte hartzera deitzen ditu bere bazkideak eta herritar guztiak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Antzinako sendabelarra

Marisol Andrade
Eskoriatza

Badago sendabelar bat Euskal Herriko herri gehienetan, antzinatik erabilitakoa.

Sendabelar hori, irailaren alboan, aletxo gisaz hasten da.

Udazkenean zehar, onddoak bezala, euria egin ostean eta eguzkia berotzerakoan sortzen baitira lehenengo esporak.

Neguan, bertsolari arteko hainbat afaritan, ahoz aho erabilitakoa; nortasuna adierazteko zapore goxoaz, hainbat merenderotan eta lagunen artean.

Olentzero baserri ondoan jaiota, Gabonetako jaietan, baliagarri oso: emateko txaloak euren ahoan dastatu izan dutenei sendabelarra; zorionak adierazteko lagunak.

Udaberrian, berriz, sendabelar horrek lauburutxoak izango ditu; akaso bihotza, agian burua, seguru arima, zalantzarik ez espiritua.

Uda heldu baino lehen, geure sendabelarrak fruitua emango du; urtsua, garratz-goxo zaporeaz. Adikzioa sortzen baita mingainean behin jarrita.

Horixe nire aitormena!

Sendabelar horrek Euskara du izena. Zeinentzat zuzenduta: euskaraz bizi eta sentitu gura dugun guztientzat.

Printzipio aktiboak: izan, egon, ukan, hainbat aditz artean. Bigarren efektuak: bertoko produktuekin jaterakoan *potolatzeko* arriskuak.

Adikzio ona, sinapsiak sortuko baitira neuronen artean.

Posologia: egunero erabilita lortzen da osasuna, kultur arloan zein herriko kaleetan.

Beraz, erabili nahi duzuen beste, onuragarria da, oreka lortzeko bizitza honetan.

Sinatuta: zeure mediku onena, zeure kontzientzia.

PNV-PSOEri erantzuna (2)

Aittor Aranzabal, Iker Izagirre, Iulen Romaratezabala, Anjel Lera eta Tomas Agote
(Debagoiena Zero Zabor)
Debagoiena

PNVk eta PSOEk azaroaren 16ko GOIENA paperean atez atekoaz eta errauskailuez esan zituztenei erantzun nahi die Debagoiena Zero Zabor-ek. Beste puntu batzuekin ere konforme ez egon arren, erantzuna lau punturi buruz egitea erabaki dugu. Hau haietako bat da:

Errauskailuari esker 60.000 familiarentzat argindarra lortuko duzuela diozue… Baina ez duzue esaten argindar hori bi aldiz ordaindu beharko genukeela: alde batetik, zabor tasan, eta bestetik, argindarraren fakturan.

Horretaz gain, hau guztia aipatzea ere ahaztu zaizue: Errauskailuei dagokienez, Europa bitan banatzen da: iparraldea (lurralde hotza) eta hegoaldea (lurralde beroa). Europa iparraldeko errauskailurik ez dugu defendatuko, baina esan behar da haiek errauskailuetan zaborra erretzean lortzen den "energia termikoa" (beroa) aprobetxatzen dutela hiriburuko etxebizitzetara beroa, instalazio sareen bidez, zabalduz. Europa hegoaldean, zaborra erre ondoren lortzen den beroaren energiarekin argindarra sortzen dute. Beroa elektrizitate bihurtzen dute, horrek dakarren energia galera guztiarekin.

Bestetik, kontuan hartu behar da errauskailuek erregai fosil asko behar dutela errekuntza burutzeko (gasa, batez ere). Hau da, errauskailuek ez dute zaborra bakarrik erretzen, baizik eta baita erregai fosilak ere. Zentral termikoek erregai fosilak erretzen dituzte argindarra lortzeko. Errauskailuek erregai fosilak eta zaborra, biak erretzen dituzte. Eta zaborrari dagokionez, plastikoa da erregai onena, azken finean petrolioa baita. Horregatik, errauskailuaren defendatzaileoi ez zaizue komeni hondakinak ondo bereizita biltzea. Baina plastiko eta guzti ere, esan beharra dago errauskailuek efizientzia energetiko oso murritza dutela. Eta arrazoia ulertzea erraza da: zabor poltsaren erdia inguru hondakin organikoek osatzen dute. Eta hondakin organikoak oso errekin txarrak dira, ur asko dutelako. Horregatik, energia asko xahutu behar izaten da zaborrean dauden hondakin organikoek duten ur hori bio-lehortze instalazioetan sikatzeko.

Horretaz gain, kontuan izan behar dugu errauskailuetan berriz produkzio-zikloan sartu ditzakegun baliabide materialak (energia) desagerrarazten ditugula (edo hobeto esanda eskoria, ke eta errauts toxiko bihurrarazten ditugula). Eta ondorioz, produktu horiek berriz sortzeko egundoko energia pila xahutu behar da: lehengaiak ingurumenetik erauzi, garraiatu, transformatu, paketetan bildu, merkaturatu… Produktua berriz ekoizteko prozesuan, zaborra errauskailuan erreta lortzen den elektrizitatea baino askoz energia gehiago xahutzen da. Eta birziklapenarekin, errausketarekin baino askoz energia gehiago berreskuratzen da.

Errauskailuei buruz goraipatzen den elektrizitate produkzioaren propaganda egin, eta lortzen den megawatt kopurua adieraztea tranpa egitea da, beste guztia mahai gainean jartzen ez bada.

Limosnatxorik BEZ

Nekane San Miguel
Arrasate

Euskararen eguna datorrela eta, hamaika adierazpen, aldarrikapen eta eskaera entzuten diren honetan, duela hilabete inguru gertatu zitzaidan historiatxo bat kontatzera natorkizue. Ez dut protagonisten izenik jarriko, gertakizunaren larritasunera (nire ustez) arreta bideratu nahi baitut.

Badira urte batzuk ekitaldi bat antolatzen dela Arrasaten, urtero, eta bertan parte hartzeko lehen gonbidapenak erdara hutsean jasotzen hasi ginen. Mesedez, euskaraz ere idazteko eskatu nien antolatzaileei, eta batzuetan jaramon egin dute, bietan, euskaraz zein erdaraz bidalita. Hori bai, beti akats ortografiko edo sintaktikoez hornituta, erdaraz sekula ametituko ez liratekeenak. Hala ere, tira! baina esan ohi diet: ez dagoela ondo, laguntzarik behar badute hor nagoela... Hala pasa dira kontuak, eta joan zen urtean e-mail helbideak eskatu zizkiguten gonbidapena bide horretatik luzatzeko, eta hara non datorren aurtengoa, guztiz espainolez. *Erantzun deneri* teklari eman nion, mezu honekin: *"Ze pena! Berriz ere españolez bakarrik!"… artean, euskaldun batzuk ere bagara...",* idatzi nuen, baina mezu-hartzaile guztien artetik, erantzun bakar bat, nirekiko adostasuna erakutsiz, beste guztiak (antolatzaileak barne) isilik. Egunak pasa eta ez nuen inolako erantzunik jaso, eta handik egun batzuetara, antolatzaileetako batekin kalean trill egin eta oso haserre zegoela nirekin adierazi. Bai, bera haserre!, mezu hori guztiei bidaltzerakoan oso gaizki portatu nintzelako: "Tú lo que tenías que haber hecho (agindu zidan) era decirnos a nosotros (hamaika aldiz esan diet) que tenemos la desgracia de no saber euskera (Arrasaten jaioak) y no teníamos a quien pedir que tradujera" (gezurra!: hamaika aldiz nire laguntza eskaini diet horretarako ere).

Ez nuen ekitaldia euskaraz burutzeko eskatu, ez, jaun-andreok, euskararen izenean limosnatxo bat besterik ez nuen eskatzen: sikiera sinbolo bat, keinu ñimiñoa… "Euskaldunak ere bagarela"… ba ez, eurak haserre. Hori Administraziotik datorrenean, orduan bai, "gure eskubideak" urratu dituztela eta prentsara, eta salaketa, baina hemen euskaraz egiten ez duenak berak jakingo du zergatik ez duen egiten (halako zerbait zioen Gandiagak), baina niri galarazten dit euskaraz egiten, bizitzen. Ez dago arazorik gure hizkuntz eskaera mugatu egiten dugunean, Administraziora eta "euskal eremuetara", zokora, bazterrera, baina oso ezeroso egiten zaie askori hortik atera nahi izatea, normalidadea nahi izatea. Zu zure txokora, eta gaizki portatzen bazara, limosnatxorik ere ez, eta limosna nahi baduzu, eskatu, makurtu... Eta bere jarrera horrekin iraintzen ari zela esan nionean, ez zuen ulertu! "¡Yo no te estoy insultando!". Zer ote euskaldunon duintasuna, jaio eta bizi zaren herrian euskarari limosnatxo bat emateko eskatzen duzunean haserrea eragiten baduzu?

Memoriaren Tren Zaharra

Esteban Altuna
Aramaio

Jon zen ostiralean, Memoriaren Tren Zaharra iritsi zen Bergarako udaletxearen osoko bilkuren areto-geltokira, ez zuen denbora luzerako egin. Ikatzez etorri beharrean, hezurrez betea iritsi zen, adinagatik hil ez ziren pertsonen hezurrez betea, ahaztu gabeko pertsonei buruzko oroitzapenekin beteak zeuden trenaren bagoiak, protagonisten begiradak ez ahazteko eskuak hainbestetan armairuetatik ateratako zimurdun argazki zaharrez beteak, azken hitzak idatzi zituzten arkatzei buruzkoak beteak, bazeuden ere azken hitz hauek idatzitako eskutitzez beteak ere; bai, izenez eta datez betetako paper zaharrak. Eta han, gure aurrean, konponbidearen azken geltokira eramango gaituzten egiaren eta justiziaren trenbide-errailak mailukada sendoz eta zehatzez eraikitzen joan ziren.

Hunkituta eta begiak malkoz gainezka, ni eta han itxaroten geunden askok, Francisco Etxebarria Gabilondoren eskutik tren horretara igo ahal izan genuen; eskerrik asko, igotzen laguntzeagatik.

Gotzon Iparragirreri

Larraitz Ugarte Zubizarreta
(Gipuzkoako Mugikortasun eta Bide Azpiegitura diputatua)
Oñati

Iragan ostiralean GOIENA paperean niri zuzendutako gutuna idatzi zenuen Deskargako ordainsaria dela eta. Irakurleen memoria freskatze aldera, gutunean Deskargan ordainsaria jartzea "gure", hau da, oraingo Aldundiaren erabaki politikoa dela esaten duzu eta berriro debagoiendarrak zigortuko ditugula diozu, N-1aren inguruko herritarrek dohain ibiltzen jarraituko duten bitartean. Bada, hau irakurrita argibide batzuk eman beharrean gaude.

Bidegik 2011ko martxoan, hau da, Bildu Diputazioan sartu baino hiru hilabete eskas lehenago, Espainiako hainbat bankurekin 400 milioiko kreditu bat sinatu zuen, AP-1eko autopistan ordaindu beharreko gainkostuak eta Donostialdeko 2. Ingurabideko obrak ordaintzeko 2005ean eskatuta zeuzkan 500 milioiekin nahiko ez zeukalako, orotara Bidegiren zorra 900 milioi eurokoa bihurtuz. Kontratu finantzario horretan bankuekin Bidegik Deskargan 2015eko apirilean ordainsaria edo peajea jarriko zuela sinatu zuen. Bidesari horrek 2015ean 7,5 milioi euro eman behar dizkio Bidegiri, kontratuaren arabera, eta 2020an, esaterako 12,8 milioi. Horretarako, hau da, diru-sarrera horiek lortzeko, kamioiei egungo Deskargako portuan ibiltzeko debekua ezartzeko konpromisoa hartzen du Diputazioak bere gain eta Deskargako portua jaitsi edo igotzearen prezioa ibilgailu arinentzat 0,90 eurotan eta kamioientzat 8,52 eurotan estimatzen du. Kontratu horretan bi sinadura agertzen dira: Enero Goya Olaso eta Markel Olano Arrese. Deskargan bidesaria ez dute zuk diozun bezala bankuek jarri, bidesaria jartzea erabaki politikoa izan da, bai, baina ez neurea edo Bildurena, EAJrena baizik. 2015etik aurrera Deskargak teorian izango zituen irabazi horiek ez badira bidesari bitartez ordaintzen, Foru Aldundiak ordaindu beharko ditu, politika sozialetik, kulturatik edota euskaratik kenduaz. Ataka zaila, ezta? Hau da urteetako kudeaketaren ondorioetako bat. Norberak epai dezala.

Behin hori esanda, Aldundi honen konpromisoa da errepide sare nagusia ordainpekoa izatea zuk diozun bezala ordainpeko eta doako errepide ardatzik izan

ez dadin eta eskualde ezberdinetako herritarron artean orain arte egon den diskriminaziorik egon ez dadin. Bide horretan doa oraintxe, abenduaren 1ean indarrean jarriko dugun neurria, zeinaren arabera gipuzkoarrok ez dugun hilero autopisten erabileragatik 25,64 euro baino gehiago ordainduko.

Informazio gehigarria nahi bazenu, deitu lasai Diputaziora, ateak irekita dituzu.

Besarkada bat zuri ere.

Ibai Redondori erantzuna

Aintzane Oiarbide
(GOIENAko kolaboratzailea)
Bergara

Azaroaren 23an, Ibai Redondok nik GOIENAn Justizia Sozialari buruz idatzitako kolaborazioari erantzun zion. Hasteko esan behar dizut, Ibai, zuk ondo azpimarratzen duzun bezala, Bergarako EAJko zinegotzia eta Batzar Nagusietako batzarkidea naizela. Ez dut sekula ezkutatu. Nire jarduera politikoa, ez profesionala, ez bainaiz politikagintzatik bizi, publikoa da erabat. Justizia sozialaz zerbait badakigu eta zuk ordezkatzen duzun ezker abertzaleak baino gehiago ere egin dugu bide horretan. Euskadin, 30 urtetan zehar EAJk lideratu duen Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuetarako legeak, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza eta Gizarteratze Legeak sortu ditu. Honekin, gizarte azpiegiturarik handiena sortu dugu, menpekotasun egoeran, pobrezian edo gizarte baztertze egoeran dauden pertsonei babesa emateko gizarte azpiegitura. Gaur egun Diputazioan dugun gizarte babesa ere guk sortutakoa da, bere akats eta guzti. Zure erantzunean aipatzen dituzu EAJko karguak izan dituzten lau pertsonaren izen-abizenak eta orain enpresa pribatuan ze kargu dituzten. Ohitura txarra da jendearen izenak guztion ahotan jartzea eta hauei defendatzeko aukerarik ez ematea. Diana batean izenak jartzea ezker abertzalearen ohitura izan da gogoratu ere nahi ez ditudan garaietan. Badirudi zuk ere iturri horretatik edan duzula. Baina esan nahi dizut EAJko jendea ez garela guztiak kargudunak, ez aberatsak. Gehienak langileak gara. Ez gara estralurtarrak. Zure bizilagunak gara, gure seme-alabak beste guztiekin batera joaten dira ikastolara. Gure senitarteko asko, beste etxeetan bezalaxe, langabezian daude. Gaixotasunak eta arazoak ere beste edozeinek bezala pairatzen ditugu. Etxearen hipoteka ezin ordaindu dabiltzanak ere asko dira gure artean. Ez gara inongo gizartetako elitea. Bestalde, ezker abertzalean ez dira guztiak langile soilak. Badaude enpresari eta kargudunak ere. Badaude aberatsak direnak ere. Ezker eta eskuin, neoliberal eta gainontzeko etiketak jartzea gaur egun sobra samar dago. Gizarte hau osatzen dugunon artean ez dago soziologia diferentzia nabarmenik. Egotekotan bat azpimarratuko nuke EAJko kide baten eta ezker abertzaleko kide baten artean. Guk beti defendatu izan ditugu giza eskubide guztiak eta beti gaitzetsi ditugu giza eskubideen urraketa guztiak. Guztiak eta beti.

30 urte eta hamaika galdera

Maren Belastegi
(UEMAko lehendakaria, UEMAren Zuzendaritza Batzordearen izenean)
Antzuola, Aramaio, Bergara, Elgeta eta Oñati

30 urte igaro dira Eusko Legebiltzarrak 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa, onartu zuenetik. 30. urteurrenaren harira, legearen apologia itsutik eta kritika suntsitzailetik urrun, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatetik (UEMA) hausnarketarako galdera batzuk planteatu nahi ditugu.

Zergatik ez du 10/1982 Legeak euskararen herria bere osotasunean hartzen?

10/1982 Legea euskararen legeetako bat da, eta Euskal Herri zatituaren parte batean sortutako legea da. Hori du berezko akats eta muga. Beste lege bat ere badago, Nafarroan, eta, txarrean, beste bat ere eduki beharko genuke Ipar Euskal Herrian. Herri zatikatua da gurea, eta, horren ondorioz, euskaldunok ditugun eskubideak bizi garen tokiaren marko juridiko politikoaren araberakoak dira. Horregatik, euskalduna ez da *legezko euskaldun oso* Euskal Herriko toki askotan. Ba al da inon?

Zergatik da 10/1982 lege *herrena?*

Eusko Legebiltzarrak 1982an onartutako legea ez da gaur egun indarrean dagoena. Izan ere, alderdi politikoek gehiengoz (eta ez kontsentsuz) onartu zuten legeari eduki batzuk erautzi zizkion Auzitegi Konstituzionalak 1986an. Hasiera batean, lege horretako artikulu batek, 8.3 artikuluak, zirrikitu bat uzten zigun udalerri euskaldunoi euskara hutsean funtzionatzeko; betiere, gaztelaniadunen hizkuntza eskubideei inolako kalterik eragin gabe.

"(…) udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dedinean, herri-agintariek, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskera bakarrik erabili ahal izango dute".

Auzitegi Konstituzionalak artikulua inkonstituzionala zela ebatzi zuen. Ondorioa? Udalek gaztelania erabiltzeko betebeharra dute, nahiz eta udalerrian denak euskaldunak izan eta inork ez eskatu gaztelaniazko idatzirik. Indarrean dagoena, beraz, lege erautzia da, herrena; eta bistan da udalerri euskaldunok ibilbide luzeagoa, hobea eta eraginkorragoa egingo genuela *herrenka* ibili izan ez bagina. Zenbat aurreratuko genuen Auzitegi Konstituzionalaren esku-hartzerik gabe?

Zergatik ez du Legeak aintzat hartzen udalerri euskaldunen egoera soziolinguistiko berezia?

Legeak ez du aitortzen hizkuntza politika berezitua edota aurrerakoia egiteko gune aproposak daudenik. Adibidez, herritarren %80, %90 edo gehiago euskaldunak diren herrietan, zergatik ez da derrigorrezkoa herriko medikua euskalduna izatea? Zergatik ez du legeak aurreikusten halako eremuetan, eremu euskaldunetan, badagoela hizkuntz politikako neurri aurrerakoiak hartzea? Zergatik ez ditu legeak neurri horiek babesten? Zergatik ez dute amezketarrek herriko medikua euskalduna izateko legezko bermerik?

Zergatik uzten du 10/1982 Legeak euskararen normalizazioa borondatearen mende?

Euskal Autonomia Erkidegotik atera gabe ere, hainbat esparrutan ez daukagu lege eraginkorrik; hau da, legerik gabe bezala gaude. Enpresekiko harremanetan, adibidez, euskaldunok legez onartuta ditugun hizkuntza eskubideen zerrenda hutsala bezain baliogabea da. Joan, bestela, saltoki handi batera eta eskatu euskaraz atenditzeko. Legearen ze artikulutan oinarrituko zara zure eskubideak aldarrikatzeko?

Gure ustetan, legearen izpirituan eta legearen aldeko diskurtsoan borondateak hartzen duen tokia gehiegizkoa da. Legeak lege izateko, neurri batzuk zehaztu eta neurriak betetzen ez dituztenekin zer egin ezarri behar du, eta, bestela, ez da legea, intentzio oneko adierazpena baizik. Gauzak borondatez egin ahal izateak gauzak ez egitea dakar, eta horrek ez atzera eta ez aurrera geratzeko arriskua dakar. Noren borondatea behar dugu aurrera egiteko?

Agian, Pako Aristiren galdera honi orain arte ez bezalako erantzun bat aurkitu beharko genioke: "Zer nahi dut, borondatezko politika baten ondoren euskara desagertzea, ala derrigorrezko politiken ondorioz euskara bizirik mantentzea?".

Zergatik bultzatu behar dugu herritarrok euskararen normalizazioa?

Legeak lege eta neurriak neurri, edozein hizkuntzaren normalizazio prozesuaren zutaberik sendoena herritarren atxikimendua da. Ezin dugu euskararen normalizazioan aurrera egin, euskaldunok bultza egiten ez badugu. Ahalik eta gehien urrundu behar dugu "Dena herritarrentzat, baina herritarrik gabe" eskematik.

Eta eskema hori hausteko, ezinbestekoa da denon indarrak batzea. Legeek ematen ez digutena edo erakunde batzuek ukatzen digutena, guk geronek aldarrikatu eta eraiki behar dugu, *Euskaraz bizi nahi dut* leloa gure eginez.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak abenduaren 1ean manifestazioa deitu du Donostian, *Euskaraz bizi nahi dut* leloarekin, eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak bat egiten du deialdiarekin. Hartara, UEMAk dei egiten die, bereziki, udalerri euskaldunetako herritarrei, Donostiara joateko eta euskaraz bizi nahi duten euskaldun direla aldarrikatzeko.

Euskaraz bizitzeko, euskarazko komunikabideak behar ditugu

Iban Arantzabal (Tokikom), Iban Arregi (Berria), Joseba Igerabide (Xaloa Telebista), Idoia Iparragirre (Gaur 8-Zazpi Haizetara), Berdaitz Goia (Argia), Iñaki Uria (11amaika Telebista), Jon Mikel Zabalegi (Gazteberri) eta Aitziber Zapiain (Euskal Irratiak)
(Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen izenean)
Donostia

Larunbatean, abenduak 1, *Euskaraz bizi nahi dugu* leloa oihukatuko dugu euskaltzaleok Donostiako kaleetan. Euskaraz jarduten dugun hedabide ez publikoak batzen dituen Hekimen elkartearen izenean, Kontseiluak deitu duen manifestazioan parte hartzera deitu nahi zaituztegu.

Euskal Herri euskalduna nahi badugu, euskaraz bizi nahi badugu, komunikabide esparru indartsua izatea ezinbestekoa da. Euskal Herrian azken hamarkadetan gizarte hedabide sare zabala sortu da: 600 bat langile gara sektorean eta ehunka mila pertsonarengana heltzen gara. Esparru txikia da gurea, baina, aldi berean, indartsua eta ezinbestekoa euskaraz bizi nahi badugu.

Administrazioa, hezkuntza eta hedabideak zutabe funtsezkoak dira hizkuntza garapenean. Baliabideei dagokienez, administrazioan eta hezkuntzan indar handia jarri da azken hamarkadetan, euskarazko hedabide publikoetan ere bai. Baina askoz gutxiago hedabide ez publikoetan. Euskal gizarte moderno eta kohesionatua eratzeko, hizkuntza-komunitatea osatzeko, gizarte hedabide sare zabala behar bezala babestu behar dugu.

Euskararen hiztun komunitateak behar duen eremu komunikatiboa sendoa garatzeko, elkarlanaren bidea jorratu dugu urte hauetan guztietan euskarazko komunikabideek. Elkarlan hori bideratzeko, Hekimen elkartea sortu berri dugu. 50 komunikabide baino gehiago batu gara, euskaraz bizi ahal izateko garrantzitsuak garela aldarrikatzeko.

Euskaraz bizi ahal izateko, ezagutza eta borondateaz gain, ezinbestekoak dira baliabideak. Euskarazko eremuak behar ditugu. Hedabideen kasuan, gure herrietan, euskal gizartean, Europan, munduan… gertatzen denaz informatuko gaituzten komunikabideak behar ditugu. Teknologia berriek eta Internetek ekarri dituzten aldaketetara egokitutako komunikabideak.

Komunikabideontzat ez dira garai onak, krisi hotsak nonahi entzuten dira. Baina ilusioz ari gara beharrean, bizi dugun egoera gaitzari elkarrekin erantzunez. Euskal gizarteak garai berriak bizi ditu, testuinguru egokia euskararen normalizazioan behar ditugun aldaketak emateko. Euskarazko komunikabideek, azken hamarkadetan bezala, gure ekarpenarekin jarraituko dugu. Guztiok euskaraz bizitzeko aukera izan dezagun.

Justizia soziala gora, justizia soziala behera

Eñaut Portuondo
Arrasate

Azken 30 urteetan askapen iraultza aldarrikatzen ibili direnen lotsa falta txundiduraz ikusten ari gara.

Iraultza sozialista omen zen langileon askapenerako bidea, eta helburu hori lortzeko, dena omen zen zilegizkoa. Baita asasinaketa, bahiketa eta estortsioa ere.

Eta zer lortu dute beraien burua gure salbatzailetzat zeukaten hauek?

Zeintzuk izan dira ezker abertzaleak bultzatu duen estrategia politiko-militar horren ondorioak?

Euskal Herritarron artean justizia soziala zabaltzea, beharbada? Ez, horixe.

Estrategia horren ondorioak, zoritxarrez, bi izan dira: presoak eta biktimak.

Biktimen artean, gainera, sarritan langile xumeak. Bestela, gogoratu Ortega Lara langile publikoa edo Isaias Carrasco langilea. Ez lehengoaren bahiketak, ez bigarrenaren hilketak ere, ez zuten inolako aurrerapausorik lortu euskal herritarron arteko justizia sozialean.

Beraz; nor dago langileen alde? Zer egin du ezker abertzaleak justizia sozialaren alde?

Ane Garces | Som Energia kooperatibako bazkidea

"Energia berriztagarrien aldeko apustua egin nahi dugu, tokian tokiko baliabideak baliatuta"

- Eredu desegokiak alboratu eta bide berrien erabilpenaren kontzientzia zabaldu nahi da
- Energia eskuratzeko bide alternatiboak azaltzeko hitzaldia egin dute Bergaran asteon

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Energia erabiltzeko modu ezberdinak. Egokiagoak. Ekologikoagoak. Tokian tokiko baliabideei behar bezalako probetxua ateraz eta bidezko erabilgarritasuna bermatuz. Energia berriztagarrien erabilera bultzatu nahi du Som Energia kooperatiba kataluniarrak. Ane Garces bergararra taldeko bazkide da.

Zer da Som Energia?

2010ean Katalunian sortutako energia kooperatiba da Som Energia. Harrezkero, tokiko hainbat talde sortu dira Estatu osoan zehar, kooperatiba beraren barruan. Duela aste batzuk gure bailaran Som Energiako bazkide ginen lagun batzuk bildu ginen eta hemen martxan jartzeko gogoz gabiltza.

Zein da zuen asmoa?

Merkatu elektrikoaren funtzionamenduaren inguruko informazioa zabaldu nahi dugu, haren akats nagusiak zeintzuk diren erakutsi eta jendeari kontzientziarako bidea zabaldu. Gure esku zer egin badago, eta jendea horretaz jabearazi nahi dugu. Finean, inguruko herrietan difusioa egitea eta tokian tokiko aukerak eta baliabideak aztertuz aldaketarako posible diren urratsak bultzatzea dira gure helburuak.

Sektoreko ohiko konpainien zenbait funtzio hartuko dituzue, baina zuena kooperatiba da. Zer dela eta kooperatiba?

Energiaren erabilera egokia egitea guztion betebeharra eta ardura da. Eta horretan lan egiteko eta ondo funtzionatzeko era onena kooperatiba gisa aritzea dela uste dugu. Som Energia, poliki-poliki, energia berriztagarrizko tokiko proiektu txikiak sortzen eta bultzatzen ari da. Gainera, Europa mailan, primeran funtzionatzen duten kooperatiba energetikoen eredu ugari dago eta emaitza oso onak ematen ari dira.

Kooperatiba moduan aurkeztea, beraz, lagungarria izango da.

Zalantza barik. Eredua gustuko dugu eta praktikan ikusi dugunagatik egokia izan daitekeela uste dugu. Izan ere, bazkide bakoitzaren parte-hartzea berma daiteke, denon hitza errespetatuz eta erabakitzeko aukera berdintasuna bultzatuz.

Zein da gaur egungo egoera energia kontsumoari dagokionez?

Momentu honetan, Estatu mailan, merkatu elektrikoaren geruza guztiak hiru oligopolioren eskuetan daude: Endesa, Iberdrola eta Gas Natural-Fenosa. Nahiz eta teorikoki merkatu elektrikoa liberalizatuta egon, hiru oligopolio hauek dira beraien interesen arabera erabakiak hartzen dituztenak. Ondorioz, prezioekin ere nahi dituzten gorabehera guztiak egiten dituzte. Horrez gain, 2011ko datuen arabera, Estatuak kontsumitutako energiaren %84 atzerritik lortu zen. Honek dependentzia izugarria dakar ordainetan.

Ane Garces, Som Energiako bazkidea | ENEKO AZKARATE

"Jendea energia berriztagarrien erabileraren onurez jabetzea nahi dugu"

"Europa mailan, kooperatiba eredua oso emaitza onak ematen ari da"

Honen aurrean, Som Energiak zer proposatzen du?

Som Energiaren helburuak ezberdinak dira. Batetik, Estatuan nagusi diren oligopolio horiek bultzatutako sistema bukatu eta beste modu batera bideratzea. Bestetik, arrazoi ekologikoak direla eta, energia berriztagarrien aldeko apustua egin nahi da. Hori bai, tokian tokiko baliabideen erabilgarritasuna eta probetxua ateratzea bermatzen dutenak. Alegia, eredu deszentralizatu baten alde egin nahi da.

Zuek, zuen aldetik, gurean bide berari heltzeko gonbita egin nahi duzue?

Momentu honetan, Som Energia komertzializazioaren geruzan sartu da. Baina, poliki-poliki, bazkideen bidez lortutako kapital sozialarekin eta inbertsio partikularrekin, zenbait proiektu garatu ahal izan dira. Egun, zazpi proiektu daude martxan, guztiak Katalunian, bertan baitago bazkide kopuru handiena. Aitzitik, pixkanaka-pixkanaka beste leku batzuetara zabaldu nahi dugu. Estatuan bizi den edozeinek kontrata dezake argia Som Energiarekin.

"Sortutakoa soilik kontsumitzea zaila da, baina horretara hurbildu nahi dugu"

"Tokian tokiko baliabideak modu egokian erabiltzea ezinbestekoa da"

Bezeroak nola ziurta dezake etxera iristen zaion energia berdea dela?

Etxera iristen zaigun energia osoa era berrizgarrian sortu dela ziurtatzea ezinezkoa da gaur egun. Sortzen den energia guztia (nuklearra, berriztagarria ...) sarera injektatzen da zuzenean eta ez daukagu bereizterik. Hala ere, energia kuotak zeintzuk diren edota sortzen den energiaren zein batez besteko den berriztagarria jakiteko, badago aukera. Datuok eskuetan izanda, apurka-apurka energia berriztagarrien eskaria geroz eta handiagoa izatea da helburua, honek sortzaile berriztagarriak bultzatuko ditu eta.

Nola izan eskura beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak zein azpiegiturazkoak?

Kooperatiba izanik, Som Energiaren baliabide ekonomikoak bazkideengandik datoz. Batetik, bazkide egin ahal izateko eskatzen den 100 euroko kapital sozialetik; bestetik, kontsumitzaile bezala dauden irabazietatik; eta, azkenik, egiten diren banakako inbertsioetatik. Martxan jarritako azpiegiturak txikiak izan dira; teilaturen batean instalatutako plaka fotovoltaikoak, esaterako. Ez dago azpiegitura erraldoietarako asmorik, ez baita hori gure filosofia.

Posible al da norberak sortutakoa baino ez kontsumitzea? Alegia, hori nahikoa izatea?

Norberak sortzen duena kontsumitzea helburu ideala izango litzateke, baina egungo sistemarekin ezinezkoa da hori lortzea. Gure helburua horretara ahalik eta gehien hurbiltzea da. Horretarako, hasierako kontzientziazioa beharrezkoa da.

Alde ekonomikoari begira, energia berriztagarrien erabilpena merkeagoa ala garestiagoa da?

Energia prezioak nahiko antzerakoak dira. Eraginkortasun aldetik, beste konpainia guztien berdina izango da; izan ere, guk ez dugu banaketarik egiten; oraingoz, komertzializatu bakarrik egiten dugu.

Aldaketak tramite asko eskatzen al du?

Webgunean *(http://www.somenergia.coop/)* dagoen formulario bat betetzea baino ez daukagu. Behin bazkide izanda, kontsumitzaile bilaka gaitezke. Beste tramite guztiak Som Energiak gestionatzen ditu 1-2 hilabeteren buruan.

Jatetxe Gida

Dragon Oriental

Fraiskozuri 7
BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza
- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.

Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea
ARRASATE
943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita

Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35.
BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es

Eskaintza
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(e-guardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.

Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean)
ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza
- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.

Uxarte jatetxea

Udala auzoa 12
ARRASATE
943 79 12 50
943 77 15 62

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

HERRIAK

Komentuko kaperan errezoak egiten dituzte goizean zehar. | A.B.

Ortutik jasotzen dituzte elikagai asko. | A.B

Bi moja ortuan lanean. | A.B

Goizean hiru orduz eskolak izaten dituzte. | A.B

BERGARA

Gaztetasun giroa iritsi da Bergarako komentura

San Juan eta Santo Domingoren 19 ahizpa dira, eta ez dira klausurakoak

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergarako Trinitate monasterioak bizilagun berriak ditu. Moja klaratarrek urriaren amaieran utzi zuten komentua, eta ordena berria etorri da: San Juan eta Santo Domingoren ahizpak. Orain sortzen ari den ordena da. Hain justu ere, 2012an Kordoban sortu zen, eta kontenplazioko bizitza egiten dute. 150 ahizpak osatzen dute komunitatea, eta, besteak beste, Mexikon, Filipinetan, Kamerunen, AEBetan eta Brasilen dituzte komentuak. Orain, Bergaran daukate kokaleku berria.

Oso gazteak dira gehienak. Bergarara etorri diren 19 ahizpak, esaterako, 20-25 urte dituzte. Luzia ahizpa da arduraduna, eta, haren esanetan, erdiak nobiziak dira eta beste erdiak profesak; hau da, betiko botoa eman dutenak. Trinitate monasterioa nobizien formazio zentroa izango da.

Hamaika herrialde

Italia, Frantzia, Austria, Finlandia, Alemania, Errumania, Kroazia, AEBak, Ingalaterra... Hamaika herrialdetatik etorritako gazteak dira. Frantsesa da komunitatearen hizkuntza nagusia; frantsesez hitz egiten duten elkarren artean. Espainola ikasten ari dira gehienak.

Karitatetik bizi dira

Pozik daude Bergaran lehenengo aldiz monasterio batean bizi izateko aukera daukatelako: "Orain arte gure beharretarako egokitutako etxebizitza arruntetan bizi izan gara, eta guretako monasterio bat izatea ikaragarria da".

San Juan eta Santo Domingoren ahizpek "bizitza orekatua" daramate, eta "errezoa, ikasketak eta eskulanak" dira bizitzaren hiru ardatzak. Pobreziaren aldeko botoa eginda dutenez, eskean ibiltzen dira: "Badakigu Bergaran herritarrak arduratuta daudela; eskean ikusten gaituztenez, uste dute ez dugula jaten. Esan nahi diegu lasai egoteko. Gure erabakia da karitatetik bizi izatea".

04:30ean esnatzen dira eta errezo eta meza artean ematen dituzte goizeko lehen orduak. 09:45etik 12:45era ikasi egiten dute eta arratsaldea, berriz, eskulanak egiten edo bestelako lanak egiten ematen dute.

Ahizpa kirolariak

Mojen gaztetasuna ez da bergararren atentzioa eman duen gauza bakarra. Oso ohikoa da mojak abitua jantzita Bergaran barrena antxitxika egiten ikustea. Irudia, noski, oso deigarria eta ezohikoa da. Mojak eurak ere kontziente dira horretaz: "Jendeari atentzioa ematen dio gu korrika ikusteak. Burua landu behar da, baina gorputza ere bai, eta horixe da egiten duguna".

Domekan, hilak 2, Santa Marina parrokian, 12:00etako mezan egingo diete aurkezpen ofiziala, eta azaldu digute "eguna iristeko irrikan" daudela.

"Zikinagoa eta biziagoa" izango da aurtengo txerria

Santamasetako protagonista Garagartza auzoko Korreoena baserritik etorriko da aurten ere

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hainbat urtez Araba aldetik ekarri izan dute Santamasetako txerria. 2010ean, baina, Garagartza auzoko Korreoena baserrikoek txantxetan jo zuten Komisiñokoengana, euren baserrian lehenengoz hezi zuten txerria Santamasetakoa baino handiagoa zela esanez. Bada, 2011n Komisiñokoak ez zuten aukera galdu: Garagartzara jo zuten txerriaren bila, eta aurten ere hala egingo dute. Guk martitzenean egin genuen hitzordua Korreoenako Egoitz Zuazubizkarrekin, aurtengo txerria gertutik ezagutzeko.

Harrera beroa egin zigun animaliak. Kortan alde batetik bestera korrika eginez egin zigun ongietorria: "Iazkoa baino gehiago mugitzen da, jolasean arituko balitz bezala korrika egiten du. Hobe horrela, akabatzen dugunerako koipez josita egon baino muskulu gehiago izango ditu-eta", adierazi zigun Zuazubizkarrek umoretsu.

Izena, abenduaren 11n

Oraingoz, ez du izenik: "Komisiñokoekin oraindik ez gara egon, eta eurek jarriko diote izena". Komisiñoko kideekin egon gara, eta, esan digutenez, abenduaren 11n egingo dute prentsaurrekoa, Santamasetako txerriaren eta jaietarako egitarauko xehetasun guztien berri emateko.

Pieza handia da Zuazubizkarrek hazi duen txerria, eta orain-dik pisu zehatza ez dakien arren, 200 kilotik gorakoa izango dela uste du: "Iazkoak 240 kilo hartu zituen eta aurtengoak ere antzeko pisua izango du; kilo gehiago, akaso. 20 bat egun geratzen dira jaietarako, eta apur bat gizenduko da oraindik". Txerria zaintzea ez da lan handia, baina bai egunero egin beharrekoa. Bestalde, iazkoa baino zikinagoa ei da aurtengoa: "Iazkoak alde batean egiten zuen kaka eta beste baten lo. Aurtengoak, berriz, kaka eta lo leku berean egiten du".

Sasoiko dieta ekologikoa

Txerria ondo zainduta izan dute Korreoenan. Horren adierazle da jaio zenetik izan duen dieta; ederto elikatu dute: "Ortuan momentuan dagoena jaten du. Hainbat kalabaza erretiratu ditugu, eta orain, batez ere, hori jaten du. Baina artoz, babarrunez eta garagarrez egindako pentsua ere ematen diogu". Lan gogorra izan arren, pena ere sentitzen du Zuazubizkarrek Komisiñokoak txerriaren bila joaten direnean: "Gogorrena da txerria eramaten dutenean. Iaz asko sufritu zuen, eta, Komisiñoko kideek esan digutenez, aurten beste sistema batekin egingo dute. Beste karro bat ekarriko dute eta espero dugu errazago kargatuko dutela".

Jaien ostean, buelta etxera

Santamasetako zozketa egin ostean txerria berriro ere Korreoena baserrira bueltatuko da: "Animali biziak zozketatzea debekatutako dago, legeak ez du uzten. Hala, zozketarako batzen den dirua irabaziko du txartel saritua duenak. Komisiñoak txerria alokatu egiten digu Santamasetarako; gero etxera etorriko da berriro", dio.

ESANAK

"Iazkoak 240 kilo hartu zituen eta aurtengoak antzeko pisua izango du; kilo gehiago izango ditu, akaso"

EGOITZ ZUAZUBIZKAR | KORREOENA BASERRIA

Aurtengo txerria eta Zuazubizkar, Korreoena baserriko kortan. | JOKIN BEREZIARTUA

Gaztaina-erreak dastatzeko aukera gaur Herriko Plazan (17:00), Arrasate Herri Eskolaren eskutik

Urteroko ohiturari jarraituz, Arrasate Herri eskolak gaztaina-erre dastatzea antolatu du gaurko. Udazkenaren etorrera ospatzeko ekitaldia da, eta, jakinarazi dutenez, deialdia herritar guztiei dago zabalik. 17:00etan hasiko dira gaztaina-erreak banatzen, Herriko plazan. Guraso elkarteko kideak 15:30ean hasiko dira gaztainak prestatzen, 17:00etarako dena gertu egon dadin. Euria egiten badu, azken urteetan moduan, udaletxeko arkupeetan egingo da dastatzea. Antolatzaileek espero dute aurreko urteetako erantzun ona izatea.

ESKUALDAKETA

Negozioa eskualdatzen da erretiroagatik.

- Sukalde, bainugela eta etxerako altzarien eta etxetresnen negozioa.
- 1970ean sortua.
- Bizpahiru pertsonaren artean kooperatiba osatzeko aukera paregabea.

Tel.: **608 99 20 58**

BEHEKO DENDATIK

Espe Etxanizek orain dela 25 urte ireki zuen bazarra. | Z.V.D.M.

Espe Etxaniz | Tokion Bazarra

"Asko gustatzen zaizkit erlojuak, baina egia da lan handia ematen dutela"

Zilarrezko ezteiak bete ditu Tokion Bazarrak, eta ordutik arrasatearren erosleku finko bilakatu da

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Hogeita bost urte bete ziren martitzenean Espe Etxanizek Tokion Bazarra ireki zuela.

Nola oroitzen duzu lehen eguna?

Juan Karlos Gerra plazan geunden orduan. Arratsaldez ireki genuela oroitzen dut, eta ordurako jende ilara luzea zegoen denda kanpoan zain; orain ez da horrelakorik gertatzen. Zenbait urte eman genituen han; 1996an lekualdatu ginen Erdiko kalera.

Eta zer saltzen zenuten?

Erlojuak eta osagarriak genituen hasieran. Denborarekin bezeroen nahien arabera ekarri ditugu salgaiak, eta denetarik dugu orain: zilarrezko bitxiak, irratiak... Eta beti-beti, erlojuak. Asko gustatzen zaizkit, baina egia da lan asko ematen dutela. Gainera, bermea duenean ongi funtzionatu behar du, baina baita ostean ere.

"Eskerrak eman gura dizkiet herritarrei urte hauetan hor egoteagatik"

Urte hauetan aldaketarik nabaritu duzue erosketa ohituretan?

Lehen, asko saltzen genuen, urteko edozein egunetan, eta noski, Gabonetan askoz gehiago. Orain, ez da kasua, eta aurrekontu jakin batekin etortzen da. Gainera, nabaritu dugu herritarrek Gasteiz-eta aukeratzen dutela, askotan, asteburuko erosketak egiteko.

Arrasatearren gustuak asko aldatu al dira?

Ez zait iruditzen, gurera etortzen diren gehienak pertsona helduak dira eta nahiko finkatuta dituzte gustuak. Bestalde, esango nuke gure bezeroek beti jakin dutela zer gura duten; hiruzpalau produktu erakustearekin erabakitzen dute erosi gura duten ala ez, eta gaituzte mareatzen. Eskerrak eman gura dizkiet herritar guztiei 25 urte hauetan hor egoteagatik.

Egitarau zabala bihar San Andres eguna ospatzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

San Andres eguna da gaur. Hori dela-eta, auzo alkatetzak egitaraua berezia antolatu du gaurko eta biharko. Biharkoa izango da egun handia; azoka eta 80 urtetik gorakoen omenezko bazkaria izango dira hitzordu garrantzitsuenak. Gudarien plazako azokan, kanpoko zein bertako produktuak egongo dira; izan ere, herriko extremadurarrak, andaluziarrak eta galiziarrak bertan izango dira. Gainera, hileko hirugarren zapatuko azokan parte hartzen duten baserritar batzuk ere egongo dira, baita Aramaioko sagardogileak ere. Artisauak ere ez dira falta izango. 20 bat postu espero dira.

80 urtetik gorakoen omenezko bazkaria izango da aurtengo nobedade nagusia. Normalean, auzoko jaietan egiten dute, baina aurten jaiak antolatzeko orduan arazo batzuk izan zirenez, San Andres egunera atzeratzea erabaki zuten. 40 bat lagun espero dira Corazon de Encina elkartean egingo den bazkarian, 14:30ean. Amaitzeko, 22:30ean, La Txusma eta Bitter Honey taldeen kontzertua egongo da Gudarien plazan.

Ekin elkarteak eragile berria behar du lehenbailehen hasteko

Ekin Emakumeak elkarteak eragilea behar du, besteak beste, administrazio lanak egiteko. Sei hilabeterako kontratu partziala da eskaintzen dena. Interesatuek lehenbailehen bidali beharko dute curriculuma *ekin.emakumeak@telefonica.net* helbidera. Administrazioa eta kudeaketa lanak, lantaldeen dinamizazioa, ekintzen antolaketa eta dirulaguntzen eskaerak egitea izango dira lan aipagarrienak. Lehenbailehen lanean hastea da asmoa.

Euskal preso eta iheslarien aldeko Azken Ostirala gaur

Hileko azken egubakoitzero moduan, euskal preso eta iheslarien aldeko kontzentrazioa egingo da gaur Herriko Plazan, 19:30ean. Bestalde, Herrirak aditzera eman duenez, urtarrilaren 12rako antolatzen ari diren Bilboko herri mobilizazio orokorrari begira webgune bat abiarazi dute: *www.urtarrilak12.com*. Bertan aurki daiteke egun horretarako propio egindako abestia eta hainbat material grafiko; besteak beste, *Denbora* izeneko bideoa.

Herriko preso ohien talde bat, biharko aurkezpenerako gonbita egiten. | J. BEREZIARTUA

Harrera elkartea aurkeztuko dute bihar Kulturaten

Helburua da preso eta iheslari ohiei bizimodu duina bermatzea

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Harrera elkartea da preso ohi edota iheslari ohiendako asistentziazko zerbitzua eskaintzen duen taldea. Talde legala da eta Euskal Herri osoan funtzionatzen du". Hitz horiekin definitu du Igor Letona preso ohiak Harrera taldea. Martitzenean egin genuen hitzordua Letonarekin eta Arrasateko beste bost preso ohirekin, bihar aurkeztuko den Arrasateko Harrera taldearen gainean berba egiteko.

Helburua da kartzelan edo erbestean egon ondoren askatasuna lortu dutenen bizimodu duina bermatzea: "1980ko hamarkadan presoak espetxetik irteten hasi zirenean ikusi zen hutsune ezberdinak zeudela, eta hutsune horiek betetzeko laguntza behar zutela. Urteetan zehar talde ezberdinak saiatu dira laguntza hori eskaintzen; azken urtean lortu da Euskal Herri mailan talde bat egituratzea: Harrera taldea", azaldu du Letonak.

Denetariko laguntza

Laguntza mota ezberdina ematera dator Harrera taldea: "Laguntza juridikoa edo laguntza administratiboa izan, denetariko laguntza eman gura die Harrera taldeak preso eta iheslari ohiei".

Hala, helburu ezberdinak betetzeko asmoa du eratu berri den taldeak, funtzionaltasun batekin: "Kartzelatik irteten diren presoei edo erbestetik datozen pertsonei asistentziazko laguntza ematea", adierazi zuen Arrasateko preso ohiak martitzenean.

Edonorendako ateak zabalik

Era berean, Letonak azpimarratu du Harrera elkartea preso ohiek osatutakoa izan arren, "elkartearen helburuekin bat datorren edozein herritarrek" parte har dezakeela: "Edozein eratako babesa ongi etorria izango da eta parte hartu gura duen edonorendako ateak zabalik egongo dira". Ildo beretik, iragarri dute elkarteko kide izateko bazkide kanpaina abiaraziko dutela, urteko kuota ordaintzeko.

Aurkezpena bihar Kulturaten

Arrasateko Harrera taldearen aurkezpen ekitaldia bihar egingo da Kulturateko areto nagusian, 11:30etik 12:30era. Lau bat minutuko bideo bat jarriko dute eta 20 minutu inguru iraungo duen azalpen baten bidez aditzera emango zaio Arrasateko herriari zer den eratu berri den taldea. Aurkezpena borobiltzeko luncha egingo dute: "Mundu guztia dago gonbidatuta", dio Letonak.

ESANAK

"Iheslari eta preso ohiei zerbitzu asistentziala eman gura dien talde legala da Harrera taldea"

IGOR LETONA | HARRERA TALDEKO KIDEA

Hiesaren aurkako egunaren harira, hainbat ekimen

Udaleko Sexologia Zerbitzuak *Sexosasun Astea* antolatu du, bihar, abenduak 1, hiesaren aurkako eguna dela-eta. Gaur hasi eta domekara artean hainbat ekimen antolatu dira. Besteak beste, bihar, hiesaren informazio puntua egongo da Seber Altuben, 11:00etan. Era berean, astelehenean hasi zen 16 urtetik gorakoendako formula erotikoen txapelketa domekan amaituko da. Bestalde, bihar, Revolta Permanent taldeak kontzertua eman behar zuen erdiguneko Gaztegunean, baina Txatxilipurdik jakinarazi du bertan behera geratu dela saio hori.

Txatxilipurdi begirale bila dabil, aurten ere, Txikilandiarako

Txatxilipurdi elkartea begirale bila dabil Txikilandia Gabonetako jolas parkerako. Iaz bezala, aurten ere Uarkape pilotalekuan egingo da Arrasaten bi hamarkada pasa bete dituen jolas parkea. Noiz? Urtarrilaren 3an, 4an eta 5ean. Bada, hiru egun horietan lan egin gura dutenek abenduaren 10a baino lehen bidali beharko dute curriculuma *kultura@txatxilipurdi.com* helbide elektronikora. Goiz zein arratsaldez lan egin beharko da, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Argibide gehiagorako Txatxilipurdira jo (943 79 54 46).

Izena eman daiteke sexismoaren aurkako komiki tiren lehiaketan

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira Emakume Txokoak lehenengoz antolatu duen komiki tiren lehiaketarako izen-ematea zabalik dago oraindik. Abenduaren 7an da lanak entregatzeko azken eguna; BAZen, 12:00etara arte. Lan onenaren egileak 400 euro jasoko ditu eta euskarazko lehen saria ere 400 eurokoa izango da. Gainera, 150 euroko bi accesit ere banatuko dira. Helburua da komikia erabiltzea pizgarri moduan jarrera diskriminatzaileen eta sexisten aurka. Argibide gehiagorako, Emakume Txokora jo: 943 79 41 39.

JMA Tattoo, gustuz egindako eta azken detailera arte zaindutako tatuajeak

Tatuajeen munduan eskarmentu handia du Juanma Vazquez arrasatearrak. Denetarik egiteko gai bada ere, realismoa da haren espezialitatea; detaile txikienak ere zaintzen ditu.

Juanma Vazquez bezero batekin, erretratu baten tatuajea egiten.

> Tatuajeen munduan izena lortzeko sekretua da lan onak egitea, izan ere, tatuajeak gustuko dutenen artean ahoz ahoko komunikazioak agintzen du.

Txikitatik marraztekо zaletasuna izan du Juanma Vazquezek (Arrasate, 1974). Bada, 11 urte pasatxo dira zaletasuna ofizio bihurtzea erabaki zuenetik: "Oso gaztetatik tatuatu gura nuen, eta lortu dut". Ibilbide luzea eta esperientzia handia du, beraz. Bospasei urte etxetik bertatik lan egin ostean, Erdiko kale eta Iturriotz arteko tunelean du lokala egun.

Bezeroa pozik uztea

Bezeroa pozik uztea da da lehen helburua: "Gura duen diseinuaren zirriborroa egiten diot eta gustatzen bazaio, aurrera. Gero, tatuajeak egiterakoan, azken emaitza izugarri zaintzen dut. Ez dago prisarik, ondo egindako lana da helburua. Ni pozik geratu behar naiz bezeroa ere pozik joan dadin". Lan onaren garrantzia azpimarratu du: "Tatuajeen munduan izena lortzeko sekretua da lan onak egitea, izan ere, tatuajeak gustuko dutenen artean ahoz ahoko komunikazioak agintzen du". Oso zorrotza da bere buruarekin eta detaile txikienak ere zaintzen ditu. Hala, errealismoa da: bere espezialitatea: "Denetarik egiten dut, baina azken detailera arte zaindu beharreko tatuajeak gustatzen zaizkit bereziki. Erretratuak, adibidez, izugarri gustatzen zaizkit". Arrasateko jendeaz gain, Eibar, Ermua, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako bezeroak izan ditu, besteak beste.

ZALDIBAR

Iluntz-Aston Birra	2-2
Aldatz-Lasagabaster	3-1
Sonografos-Ostantz	3-3
AT Betrayer-Fidel	6-5
Haizeaz Weah-Iriztu	4-10
Abokajarro-Dribling	4-3

	TALDEA	P	J
1	Iriztu	9	3
2	Ostantz	7	3
3	Sonografos	7	3
4	Dribling	6	3
5	Abokajarro	6	2
6	Lasagabaster	3	3
7	Fidel & Discipulos	3	3
8	AT Betrayer	3	2
9	Haizea's Weah	3	3
10	Aldatz	3	3
11	Iluntz	1	3
12	Aston Birra	1	3
13	Iluna Taberna	0	2

ABENDUAK 1, ZAPATUA
10:00 Fidel & Disci.-Ostantz / **Sonogra.**
11:00 Sonografos-Aldatz / **Fidel & Disc.**
12:00 Abokajarro-Lasagabaster / **Aldatz**
13:00 Iluna Tab.-Iriztu / **Lasagabaster**
15:30 Haizea's W.-Aston Birra / **Betrayer**
16:30 AT Betrayer-Iluntz / **Aston Birra**
ABENDUAK 2, DOMEKA
10:00 Iluna Taberna-Dribling / **Iriztu**
11:00 Abokajarro-Iriztu / **Dribling**
12:00 Haizea's-Lasgabast / **Abokajarro**
13:00 AT Betrayar-Ostantz / **Haizea's**
15:30 Sonografos-Iluntz / **Aston Birra**
16:30 Aston Birra-Aldatz / **Iluntz**
Atsedena: Fidel & Discipulos

Asteburuan, jardunaldi bikoitza

Oraingo asteburuan taldeek gogotik bota beharko dute izerdia, antolatzaileek jardunaldi bikoitza aurreikusi dute-eta. Salbuespen modura, Fidel & Discipulos taldea izango da lasai ibiltzen bakarra; zapatu goizeko lehenengo partidua jokatu ostean, libre izango dute domekan.

Iriztuk indartsu hasi du txapelketa

Beste edizio batzuetan ere indartsu ibili dira Iriztukoak, eta, orain arte jokatu dituzten hiru jardunaldietan, bakarrak izan dira dena irabazten. Joan den astean hamar gol egin zizkioten Haizea's Weah taldekoei.

MUk Paduraren bisita izango du bihar

X.U. | ARRASATE

Joan den astean La Peñaren kantxan puntu bateko aldeagatik galdu ostean (71-70), Arrasateko mutilek Padura hartuko dute bihar (18:00, Iturripe). Arrigorriagako taldeak MUk baino garaipen bat gutxiago du, eta seigarren dago sailkapenean –MU laugarrena da, liderrarengatik bi puntura.

Etxekoek, baina, joan den asteko akatsak zuzendu nahi dituzte Iturripen: defentsa lanean hobeto jardun, eta, nahiz eta markagailuan aurretik joan, ez erlaxatu. Izan ere, Larreategiren mutilek aukera aparta galdu zuten joan den astean ligako zazpigarren garaipena eskuratu eta ligako oilarrekin –Seky eta Lizuan– aurre-aurrean parekatzeko.

Arrasateko hamabi atletak amaitu zuten maratoia

X.U. | ARRASATE

Donostiako maratoian Asier Cuevas eta Yolanda Gutierrez izan ziren onenak. Proban, baina, hainbat arrasatear izan ziren, eta, guztira, herriko hamabi lagunek amaitu zuten proba. Guztien artean azkarrena Eneko Urrizalki izan zen (2.59). Aitor Lopez Rekarte 450. sailkatu zen sailkapen orokorrean, eta herriko bigarrena izan zen (3.02). Hirugarrena izan zen Angel Delgado (3.04); laugarrena Javi Rayo (3.06); bosgarrena Juan Sanchez (3.07); Arkaitz eta Nere Arregi anai-arrebek 3.12ko denbora egin zuten; Joxe Gorosabelek 3.14; Raquel Alonsok 3.18; Mikel Alkortak 3.21; Amalio Galanek 3.30; Ander Bereziartuak 3.32; eta Rafael Romerok 3.32.

Jostailu truke azokarako materiala biltzen hasi dira Txatxilipurdiko lagunak

Bederatzigarren aldiz egingo dute abenduaren 16an truke azoka Okendoko ludotekan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eguaztenean hasi ziren aurtengo jostailu truke merkaturako materiala biltzen. Txatxilipurdiko Arantza Osoro dinamizatzaileak adierazi digunez, urtez urte geroz eta jende gehiagok hartzen du parte bertan, eta aurten ere erantzun ona espero dute.

"Bederatzigarren truke azoka izango da, eta denetariko jostailuak ekartzen dizkigute: puzzleak, panpinak, patineteak...". Jostailu bakoitzeko txartel bana emango dute, eta Okendoko ludotekan abenduaren 16an egingo den truke merkatuan aldatu ahal izango dute beste jostailu batengatik. "Guztiek balio bera izango dute". Jostailuak 17:30etik 19:00ak arte bilduko dituzte, gaur, herriko plazan; Okendoko ludotekan abenduaren 3 eta 13an; Santa Marinako plazan, abenduaren 4 eta 12an; eta Arimazubiko plazan, abenduaren 5ean eta 11n.

Jostailu truke merkatuko une bat. | TXATXILIPURDI

Euskararen aldeko ekimen ugari datorren astean

Z.V.D.M. | ARRASATE

Euskararen Egunaren harira ekimen ugari antolatu dituzte datorren asterako. Abenduaren 3an da egun handia, eta Udalak eta Arrasateko Euskalgintzako kideek Arrasateko Euskara Planaren Elkarlan Hitzarmena sinatuko dute.

Hezkuntzan, Herri Eskolako ikasleek ekimen ugari eramango dituzte aurrera eta eskola bera euskal giroz apainduko dute, eta atsedenaldietan musika egongo da. Arizmendiko gune bakoitzean ere ekimen ugari antolatu dituzte: olinpiada, antzerkiak... Institutuan, aldiz, festa txiki bat egingo dute, atsedenaldian, Euskara Batzordeak antolatuta, eta film labur komikoak ere eskainiko dituzte.

Emunek hainbat kooperatibatan ekintza ezberdinak egingo ditu: kafe hartzea, txistor-jana... Erdu-AEK-k twitterren mezu uholdea sortu gura du eta Txatxilipurdik, berriz, abenduaren 4an *Hesiak gainditzu* dokumentala aurkeztuko du Kulturaten, euskararen transmisioan oinarrituta.

Arrasateren iragana eta oraina ikusgai Kulturaten

Z.V.D.M | ARRASATE

Begira!! Arrasate deitzen da Zuztarrak Errotuz taldeak antolatutako erakusketa. Martitzenean ireki zuten eta zazpi astean zehar egongo da ikusgai Kulturateko klaustroan.

Bi urte igaro dira Zuztarrak Errotuz taldeak erakusteka egiteko ideia izan zuenetik asmoa gauzatu den arte. Arrasateko historiaurretik gaur egunera bitarteko kontuak jasotzen dira 27 informazio taulatan: *Nafarroa gure estatua; Gaztelarren hiri gutuna; Hazi eta hezi; 1936, altxamendu faxista; Kultura sortzen duen herria; Gazte gara gazte...* Arrasateren urrutiko zein gertuko iragana eta oraina jasotzen da horietan.

Zuztarrak Errotuz taldeko Xabier Zubizarretak honako esan du erakusketaren harira: "Herritarrei egun bakarrean baino gehiago, bizpahirutan etortzeko gomendatuko nieke; informazio asko eskaintzen du erakusketak". Urtarrilaren 6ra arte, martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era arte bisita daiteke erakusketa.

Zuztarrak Errotuz taldekoak, erakusketaren irekieran. | Z.V.D.M.

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

Blues doinuak nagusi gaur gauean Iluntz tabernako emanaldian

Blues-rock doinuek hartuko dute gaur Arrasateko Iluntz taberna. Bertan, Tonky de la Peña eta Iker Pirisek kontzertua eskainiko dute, 22:30ean hasita. Oholtza gainera igota, egiten dakitena bikain egiten dutela erakutsiko diete bertaratutakoei, musika melodiekin gozarazita eta gau giro ederra sortuta.

Rockaina eta ZZ Blues Band taldeak gaztetxeko oholtzara igoko dira bihar

Arrasateko Sexologia Bulegoa Sexosasun Astean murgilduta dago, eta, egitarau horren barruan, Rockaina eta ZZ Blues Band taldeen emanaldia antolatu du. Bihar izango da hitzordua, 22:30ean hasiko da, Arrasateko Gaztetxean. Gainera, antolatzaileek adierazitakoaren arabera, sarrerarekin batera opari bat emango dute.

Askapenak antolatuta Sahara eta Kolonbia berbagai bi hitzalditan

Arrasateko Askapenak antolatuta, abenduaren 11n, 19:30ean, *Sahara okupatuaren egoera Gdeim Izik-eko kanpamenduaren II. urteurrenean* hitzaldia egingo da Iratin, 19:30ean. 12an, berriz, *Antifascismo en Colombia; desde la perspectiva de la marcha patriótica* berbaldia, Dat tabernan, 19:00etan.

Ikastetxeek elkarrekin ospatuko dute Euskararen Eguna astelehenean

- Hezkuntza mahaiak eman duen emaitzetako bat da
- Udala, eskolak eta gurasoak daude mahai horretan

Hezkuntza mahaia osatzen duten eragileen bilera, udaletxean. | KONTZEJUPETIK

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herriko hiru ikastetxeek elkarlanean antolatu dute astelehenako Euskararen Eguna, eta hiru ikastetxeetako ikasleek hartuko dute parte, elkarrekin. Udalarekin batera sortu den hezkuntza mahaiak eman duen ondorioetako bat da hori: lehen aldiz, ikastetxeek elkarrekin ospatzea abenduaren 3a, hain zuzen ere.

Elkarlanerako bidetik

"Azken udal hauteskundeak izan aurretik, arloz arloko diagnostikoa egin genuen, eta hezkuntzan, ikastetxeen arteko elkarlanean hutsunea zegoela ikusi genuen. Aurtengo aurrekontuak lantzen hasi ginenean, gune hori sortzeko beharra ikusi genuen, eta, ikastetxeen aldeko jarrera ikusita, hezkuntza mahaiaren aldeko proiektua jarri genuen martxan", azaldu du Nerea Zubiak, Euskara eta Hezkuntza batzordeburuak. Udalaz eta hiru ikastetxeetako ordezkariez gain, guraso elkarteetako kideak ere badaude hezkuntza mahaian.

Gurasoendako formazio bateratua martxan da

Eskola garraioaren diagnostikoa ari dira egiten

Eta Udalak ez ezik, ikastetxeek ere ondo hartu dute elkarlaneko bidea, nahiz eta onartu ekitaldien balorazioak ere kontuan hartu behar diren. "Abiapuntua egokia da, eta elkarlanaren bidetik jarraitzea da gure asmoa", adierazi du Txantxiku Ikastolako zuzendari Jabi Agirrek. "Herriko ikasleak eta gurasoak ohituko dira elkarrekin gauzak egitera, eta hori ona da, duda barik", gehitu du Errekalde Herri Eskolako zuzendari Virginia Aspiazuk. Elkar Heziko zuzendari Juancar Olaetak, berriz, Eskola Agenda gogorazi du: "Oso aurrekari ona izan da hori. Elkarlanean, sinergiak aprobetxatu eta emaitza hobeak lortzen dira".

Formazioa eta eskola garraioa

Hezkuntza mahaiaren barruan, nork bere lan egutegia duen hiru lan-mahai osatzea adostu zuten eragileek: euskara eta euskal kultura, gurasoendako hitzaldia eta eskola garraioa lantzeko. Lehen lan-mahaitik atera ziren astelehenako ospakizuna eta Eskola Agenda bateratua, adibidez. Horrez gain, asmoa da Udaleko artxibora bisitak antolatzea ikasleendako. Gurasoei begira, euren formaziorako hitzaldi eta tailer egitarau bateratua egin dute, dagoeneko hasita dagoena. "Eskola garraioari buruz, egungo garraioaren diagnostikoa egiten ari gara Bitaka enpresaren laguntzarekin. Euren proposamena guztion artean baloratuko dugu, aurrera begira ze aukera dauden aztertzeko", azaldu du Zubiak.

EUSKARAREN EGUNA

09:30 LHko ikasleek euskaraz jolastu, abestu eta dantzatu, plazan.

11:30 Berba eta txokolatea batxilergoko ikasleendako, gaztelekuan.

18:00 Berba eta kafea herriko euskaltzaleekin, gaztelekuan.

18:00 Familian kantu saioa eta txokolatea, plazan.

20:00 Berba eta afaria Koldo Izagirrerekin, Makalenan.

Azken apartamentua!

Ez itxaron gehiago!
BEZa %4 abenduaren 31 arte.

Prezio interesgarria
Oñatin. Herri barruan, Eroski ondoan
Punta-puntako materialak
Informazioa: 943 78 28 90

Gaztetxearen inaugurazioa logotipo berriarekin

Abenduaren 22an egingo dute irekiera ekitaldia eta Ane Agirrek egindako logoa erakutsiko dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Antixena gaztetxea abenduaren 22an inauguratuko dute. Egun osoko egitaraua prestatu dute. Era berean, inaugurazioa egingo dute gaztetxearen lelo berriarekin (ikus ondoko argazkia). Ane Agirrek egindakoa aukeratu dute jasotako proposamenen artean.

Antixena gaztetxerako aukeratu duten logotipoa. | GAZTETXEA

Bazkari koloretsua

Osasunarekin urratu! izena ipini diote gaztetxearen inaugurazio egunari. Sukaldean oinarritutako kartela egin dute, eta han ikus daitezke egun horretarako ekitaldiak. Guztiak Antixenan bertan egingo dituzte.

Eguna batukada-poteoarekin hasiko dute, 12:00etan. Poteoan, barazki erraldoien laguntza izango dute gazteek. 14:00etan, gaztetxeko sukaldariek inaugurazio pregoia egingo dute, eta jarraian, bazkari "koloretsua" egingo dute gaztetxean bertan. Probatzeko askotariko jakiak egongo dira. Bazkarirako txartelak salgai egongo dira Arrano, Ona eta Boga tabernetan, abenduaren 20ra arte. Txartelekin jasotako dirua euskal preso politikoendako izango da.

Bazkalondoko tertuliaren ondoren, *gaztetxelandia* egingo dute: musika, jokoak, tailerrak, sorpresak... Inaugurazio bukatzeko rock kontzertua egingo dute, 22:00etan. Oraindik ez dituzte taldeak zehaztu.

Logotipo lehiaketa

Gaztetxearendako leloa, ikurra, topatzeko deialdira 23 lan aurkeztu zituzten. Bozketa egin ondoren, bi proposamenen artean berdinketa zegoela ikusi zuten. Biak ala biak, egile berarenak ziren: Ane Agirrerenak, bat koloretako irudia zen eta bestea zuri-beltzean egindakoa. Bada, zuri-beltzekoa aukeratu zuten. Irudiarekin batera *Antixenako gaztetxia, Oñati* testua dauka.

Lelo hori gaztetxean bertan eta hainbat gauzatan ipiniko dute: kamisetetan, izerdi-jertseetan, metxeroetan, karteletan, idazkietan, egitarauetan... Gaztetxearen ikurra izango da.

ANE AGIRRE | EGILEA

"Lelo diferentea egin gura nuen"

ANE AGIRRE

Ane Agirre oñatiarrak Arte Ederretako bigarren ikasturtea egiten dihardu Leioan. Bi lan aurkeztu zituen lehiaketara.

Zertan oinarritu zara logotipoa egiteko?

Ez dut ezer zehatzik hartu oinarri. Gaztetxe gehienetako logoak oso antzekoak dira, eta zerbait diferentea egin gura nuen. Ezberdina, originala.

Zuk aurkeztutako bi logoak berdinduta geratu ziren.

Bai. Beste logotipoak koloretako etxe bat zuen. Ostalaritza Eskolari erreferentzia egin gura nion.

Saririk jaso duzu?

Ez. Gaztetxerako logotipo lehiaketa irabazi izanaren ohorea daukat, eta horrekin konformatzen naiz. [Barre]

Beharrarengatik elkarrekin bizi izaten jartzen diren bi lagunen arteko bizipenak

'Morritson eta Gartzia kultoko antzezlana' egingo dute gaur gaztelekuan

M.B. | OÑATI

Morritson eta Gartzia kultoko antzezlana eskainiko dute gaur, egubakoitza, 22:30ean, gaztelekuan. Sarrerak leihatilan salduko dituzte bost eurotan.

Gartzia bikotekide barik eta etxe barik geratu den gaztea. Lanbidez sortzaile "alternatibo" gisa aurkezten du bere burua. *Morritson* aldiz, punk abeslari basati izandako gaztea da. Egun, ezkontzetan jotzen dihardu eta bikotekidea dauka: Olatz. Harekin "hipotekatuta" bizi dela dio.

Jon Urraza eta Jon Zubiaga *Osoron*. | GOIENA

Aspaldiko lagunak dira, baina aspaldi elkar ikusi barik egon dira. Berriro elkartuko dira kultuko antzezlan bat egiteko... eta *Gartzia*-k lo egiteko lekua behar duelako. Hortik abiatuta, askotariko gaiak ukitzen dituzte, umore eta ironiarekin: elkarbizitza, elkarlana, adiskidetasuna, bikote harremanak, sexua...

Morritson eta Gartzia antzezlaneko gidoiak Cafe Bilbao formatu txikiko antzerki-gidoien lehiaketa irabazi zuen, 2008an euskarazko lanen artean.

Bertso txapelketako lehen kanporaketako protagonistak. | MIRARI SAGARTZAZU

Bertsolari txapelketako bigarren kanporaketa, Arrano tabernan

M.B. | OÑATI

Oñatiko VI. bertsolari txapelketako bigarren eta azken kanporaketa Arrano tabernan jokatuko dute bihar, zapatua, 18:00etan. Oholtza gainera igoko dira Joseba Lasagabaster (2008ko txapelduna), Iñaki Igartua, Iñaki Olalde, Jon Irizar, Beñat Alberdi eta Andoni Goitia. Onenak, hau da, puntu gehien batzen dituenak, abenduaren 15eko finalerako zuzeneko txartela lortuko du, lehen kanporaketan Josu Igartuak egindako moduan. Oraingoz, Igartua da finalerako sailkatu den bakarra.

Sei bertsolari lehiatuko dira finalean: kanporaketa bakoitzeko onena eta gainerakoen artean puntu gehien batu dituzten laurak.

Bertsolarien lana baloratzen egongo dira: Lander Diaz de Gereñu, Patxi Goikolea, Iñaki Beristain eta Jerardo Elortza.

Bigarren kanporaketako bertsolariek bederatzi lan egin beharko dituzte: agurra, hiruna bertso zortziko txikian eta handian, bertso bat lau oinak emanda, eta kartzelako gaia.

Lehen kanporaketa

Bertsolari txapelketako lehen kanporaketa Antixena gaztetxean egin zuten azaroaren 24an. Lepo bete zen Egoitz Aizpuru, Josu Igartua, Joseba Igartua, Urko Egaña, Gorka Larrea eta Maider Arregiren lana ikusteko. Txalo zaparrada jaso zuten egindako lanarengatik. Puntuaketa honela geratu zen: Josu Igartuak, 188 puntu; Maider Arregik, 185,5; Joseba Urtzelaik, 183; Urko Egañak, 181,5; Gorka Larreak, 181; eta Egoitz Aizpuruk, 177,5.

Divine Gospel Reunion taldeak eskainiko duen emanaldirako sarrerak salgai dauden Interneten

Gabonetako egitarauaren barruan, Divine Gospel Reunion taldeak kontzertua egingo du abenduaren 14an Santa Ana antzokian. Emanaldira joateko sarrerak salgai daude dagoeneko, *www.barrabarra.eu* atarian, 10 eurotan. Internet bidez eros daitezke abenduaren 13ra arte. Eta egunean bertan leihatilan salduko dituzte, 21:30ean hasita.

'Euskaraz bizi nahi dut' bandera balkoietan ipintzeko gonbidapena egin dute Udaletik

Abenduaren 3a Euskararen Eguna dela eta, *Euskaraz bizi nahi dut* banderak etxeko balkoietan ipintzeko gonbita egin dute Udaletik. Udal arduradunek bat egin dute Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak abenduaren 1erako antolatu duen manifestazioarekin. Hori horrela, herritarrei eskatu diete antzerako keinua egiteko. *Euskaraz bizi nahi dut* banderak salgai ipini dituzte euskaltegian, hiru eurotan.

'West side story' musikaleko kanturik ezagunenak protagonista, Ganbarako taldeen kontzertuan

Ganbara Txikiko taldeek ikasturteko lehen kontzertua egingo dute Santa Ana antzokian bihar, zapatua, 19:00etan. Tailerretako hiru taldeak, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte taldeetako kideek orain arte ikasitakoa erakutsiko dute. Azken horiek *West side story* musikaleko kantuak eskainiko dituzte. "Neska-mutiko askorendako lehen kontzertua izango da, eta urduri daude", dio Ganbarako kide Aitor Biainek.

Plaza jolasez beteko da Euskararen Egunaren harira bihar, zapatua

Hitz gurutzatuen lehiaketa 11:30ean hasiko da eta ordu erdi lehenago eman ahal izango da izena; jolasak eta kantu-jira ere egongo dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Euskararen Egunarekin lotuta hainbat ekitaldi izango dira bihar, abenduak 1, eta astelehenean, abenduak 3, gurean.

Bihar, 11:30ean, hitz gurutzatuen lehiaketa izango da Munibe plazan. Oinarrietan jasotzen denez, jokoa hiztegi eta guzti egin ahal izango da eta Euskara batzordetik jakinarazi dute gurutzegrama errazak izango direla, eta jendea parte hartzera animatu nahi dute. Helburu horrekin, izena emateko epea zabaldu egin dute eta bihar bertan 11:00etarako Munibera joanda ere eman ahal izango da izena. Bi kategoria bereiziko dituzte: A kategorian, 12 eta 16 urte artekoek hartuko dute parte. B kategorian, 17 urtekoak edo zaharragoak sartuko dira.

Bihar arratsaldean, berriz, era guztietako jolasak izango dira San Martin plazan, 17:00etan hasita, eta, egunari amaiera emateko, 19:00etan, kantu-jira izango da plazatik abiatuta.

UEMA Egunean San Martin plazan jokatutako lehiaketa. | GOIENA

Abenduaren 3an, kirola eta euskara lotzen dituen bi esperientzia interesgarri aurkeztuko dira osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Alde batetik, Igor Arenazak eta Erik Vadillok Aretxabaletako Kirol Elkartean hasi eta orain bailarako beste herrietara zabaltzen ari den proiektu bat aurkeztuko dute: ESKUA proiektua, kirola errespetuarekin, euskararekin, ingurumenarekin... lotzen duena. Bestetik, Bergarako Udaleko teknikariek Agorrosingo ikastaroen hizkuntza kudeaketa aurkeztuko dute.

Gazteei dei egin diete

Udaleko Gazteria eta Hezkuntza Zerbitzutik herriko gazteei zapatuan egingo diren ekitaldietan parte hartzeko gonbita egin nahi diete. Hori horrela izanik, Zabalotegi aretoan antolatuta dagoen DJ jaialdiaren hasiera ordua ordu erdi atzeratuko dute: 19:00etatik 21:30era izango da jaialdia, hain zuzen ere. Era berean, Xabalote gaztelekua ere egun horretan 17:00etan ireki beharrean 19:00etan irekiko dute, Gazteria eta Hezkuntza Zerbitzutik aurreratu dutenez.

Osintxun ere ekitadiak

Osintxu auzoan ere ekitaldiak antolatu ditu hango Euskara batzordeak Euskararen Eguna ospatzeko. Bihar, zapatua, izango dira ekitaldiok: 11:30ean euskara gai duen mural erraldoia marraztuko dute –umeek amantala eramatea komeni da–; 17:00etan, haurrendako jolasak eta txokolatada egongo dira; 19:30ean, Osintxuko trikitilariekin poteoa egongo da; eta 21:00etan, berriz, kantu afaria egingo dute, Txuringo jatetxean, *Arno*-k lagunduta.

Ikasteko motibazioaren gaineko hitzaldia 12an

M.B. | BERGARA

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak *La motivación para el estudio / dificultad para estudiar* delako hitzaldia antolatu du. Abenduaren 12an izango da, 18:00etan, kultura etxean, eta Etxadiko kideek egingo dute; hau da, Familiendako Orientazio Psikologikorako Zerbitzukoek. Udaletik aurreratu dutenez, gela egokia aukeratzeko ondo etorriko litzaieke jakitea, gutxi gorabehera, zenbat guraso joango diren. Hori dela eta, izena ematea eskertuko dute, 943 77 91 26 zenbakian.

Hitzaldiaz gain, duela bost urte martxan jarritako Familiendako Orientazio Psikologikorako Zerbitzuaren gaineko informazioa ere emango dute, modu laburrean. Besteak beste, zerbitzua gurasoen artean ezagutzera eman nahi dute eta urte hauetan guztietan zein erabilera izan duen azaldu.

Udaletik aurreratu dute ikasturtean barrena gurasoendako hitzaldi eta ikastaro gehiago ere antolatuko dituztela.

Ekonomia moralaren gaineko hitzaldia gaur Madariaga eta Zapirainekin

Seminarioa Bergaran finkatzeko funtsezkoak izan ziren jesuita eta ilustratuen tirabirez arituko dira

M.B. | BERGARA

Udaleko Turismo Sailak azarorako antolatutako ekintzen artean, hitzaldia izango da gaur, egubakoitza, 19:30ean, Irizar jauregian. *Ekonomia morala: ekonomia, ondarea eta historia Bergaran* delako berbaldia egingo dute Juantxo Madariagak –Historian doktorea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea– eta David Zapirainek –Historian doktorea eta Bergarako Museo eta Turismo teknikaria.

Hitzaldi horren helburuak dira, batetik, bergararrek euren historia hobeto ezagutzea, eta, ondorioz, ondarea nortasuna lantzeko erabiltzea; bestetik, ondarea ikusten ditugun harrietatik haratago doala erakustea; eta azkenik, ondarea gaurkotasun handiko gaiak lantzeko ezinbesteko tresna dela erakustea.

David Zapirainek sarrera orokor bat egingo du, azaltzeko ekonomia ez dela beti etekin kontable izatea. Testuinguru horretan, Juantxo Madariagak jesuiten eta ilustratuen arteko tirabirak azalduko ditu. Tirabira horiek funtsezkoak izan ziren Errege Mintegia Bergaran finkatzeko.

Hitzaldi horrekin amaiera emango diote Turismo Sailak azaroan barrena antolatutako ekintza sortari. Hil hasieran euskal hileta erituei buruzko bisita gidatuak egin zituzten Angiozarren; hil erdialdean, autokarabanisten topaketa; eta aurreko zapatuan, berriz, tostoi eta erreilenoen dastatzea.



XUXU
Neurriak 36-54
11. urteurrena
Eskerrik asko, denoi!
Abenduak 6, ZABALIK
EGUN BEREZIA
%20ko deskontua
Levi's
Banatzaile ofiziala
San Pedro kalea 14, behea • Tel. 943 76 07 55 • BERGARA

Taila eskolakoen lanak ikusgai gaurtik Aroztegin

Celestino Vicenteren lanak eta lehengo tresnak erakutsiko dituzte

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Bergarako taila eskolako kideen lanak dituen erakusketa zabalduko dute gaur iluntzean, 18:00etan, Aroztegi aretoan. Eguaztenean hasi ziren erakusketa muntatzen, eta abenduaren 9a arte egongo da zabalik.

Bi ezagugarri berezi izango ditu erakusketak: batetik, duela gutxi hil den Celestino Vicente gogoan, haren lanak egongo dira mahai baten gainean; eta bestetik, tailarako erabili izan diren antzinako tresnak bilduko ditu txoko batean.

Jesus Otaño, Manolo Gabilondo, Joxe Gabilondo eta Patxi Larrañaga. | O.E.

Baserrietan jasotako tresnak

Erakusketa horrekin, Celestino Vicenteri omenaldi txiki bat egin nahi dio Bergarako taila eskolak, eta, horrela, haren lanak mahai baten gainean jasoko dituzte. "Celestinok egindako kutxa pare bat eta *Gernika* handi bat egongo dira, besteak beste, txoko horretan", aurerratu du taila eskolako Jesus Otañok.

Bestetik, tailarako erabili izan diren tresna zaharrak ere bildu nahi izan dituzte, herritarrei erakusteko. Horietako batzuk Celestino Vicenterenak ziren, baina beste asko Bergarako baserrietatik ekarri dituzte. "Herriko baserrietan galdetu eta aurkitu ditugu tailarako tresna zaharrak, eta denak pilatu ditugu, jendeari erakusteko. Tresna horiek ere toki berezia izango dute erakusketan", azaldu du Jesus Otañok.

Platanondoaren egurra

Ceslestino Vicenteren lanez gain, taila eskolako kideen lanak egongo dira ikusgai Aroztegiko erakusketa horretan. Egun, 25 bat lagun dira taila eskolako kide. "Gehienok erretiratuak gara. Zenbait gazte hasi dira tailagintzan, baina beste zaletasun batzuengatik utzi dute hau. Nork daki, agian 10 urte barru berriz hasiko dira honetan", gaineratu du Otañok.

Gaur zabalduko duten erakusketan, taila eskolako kide guztien lanak egongo dira ikusgai. "Egurrarekin landutako ermitak, ezaugarri ezberdinetako eraikinak, lorak, erlojuak edo heraldikak daude lanen artean, adibidez. Baita txirrindulari baten irudi txiki bat eta pare bat busto ere bai", dio Jesus Otañok.

Lan horiek egiteko materialari buruz galdetuta, egur mota bat baino gehiago erabiltzen dutela argitu du Otañok. "Haritz, pago, intxaurrondo edo platanondoen egurra erabiltzen dugu, gehienbat. Hala ere, olibondoaren egurrarekin ere egin izan ditugu tailak. Erosi egiten dugu egurra, normalean, baina batzuetan herriko baserritarrek moztutako zuhaitzetakoa ere heltzen zaigu, harekin lanak egiteko".

Bergarako taila eskolak Zabalotegi kaleko 12. zenbakian du egoitza, eta hantxe batzen dira, egunero, 18:00etan. Taila gertutik ezagutu gura duen edonor joan daiteke bertara.

Ana Moñux eta Jon Olivares Zabalotegin

Elogoibarko Taupada antzerki taldearekin 'Rusini' antzezlanean hartuko dute parte gaur

O.E. | BERGARA

Rusini izeneko antzezlana dakar gaur Elgoibarko Taupada antzerki taldeak Zabalotegi aretora. Rusini zirkuak hondoa jo du, baina, tristurekin batera, barruko istorio erromantiko bat ere kontatzen du.

13 lagun oholtza gainean

"Rusini zirkua diru barik gelditu da, ezin du aurrera egin, hondoa jo du eta kide bakoitzak bere modura sufritzen du egoera. Dena dela, tristura orokor horren barruan, bada istorio erromantikorik ere", laburtu du antzezlanaren zuzendariak, Edurne Lasak. "*Bajarse al moro* edo *La estanquera de vallecas* idatzi zituen egilearena da testu originala, Jose Luis Alonso de Santosena, eta Anjel Ugarteburuk itzuli eta moldatu du euskarara. Musika teknikari lanak Jose Mari Larrañagak egin ditu eta atrezzoa gurea da", gaineratu du Lasak.

Antzezlana euskaraz da, ordu eta erdi irauten du, gutxi gorabehera, eta Elgoibarko Taupada antzerki taldeko 13 lagun igoko dira oholtza gainera momentu baten edo bestean.

Bergararrak ere bai

Taldea Elgoibarkoa bada ere, bi bergararrek hartuko dute parte emanaldian. Jon Olivares Osintxuko auzoalkateak hiru urte daramatza taldearekin eta gaurkoan pailazoa izango da. Bestetik, musika ere entzungo da emanaldian eta Ana Moñux bergararra izango da klarinetea joko duena. Bere debuta izango da. Antzezlana 22:00etan da eta sarrera 8 euro dira.

Rusini antzezlaneko une bat. | TAUPADA ANTZERKI TALDEA

Pedro Garitano margolariaren lanak ikusgai Dixula tabernan

Pedro Garitanoren pintura erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Dixula tabernan. San Joxepeko margo tailerreko kide da Garitano, eta hark egindako zortzi artelan jarriko dituzte ikusgai; horietatik zazpi figuratiboak dira era bestea, Bergarako irudiekin egindako collage bat. Erakusketa abenduaren 31 arte egongo da zabalik.

'Herrixa dantzan' ekimenarekin hitzordua domekan Zabalotegin

Herrixa dantzan ekimenaren beste hitzordu bat dago domekan, Zabalotegin. Beste behin, euskal dantzak dantzatzeko aukera izango da Patxi Monteroren gidaritzapean. Hitzordua bikoitza da: 18:00etan umeendako dantzak egingo dituzte eta 19:00etatik aurrera, berriz, nagusien txanda izango da. Domekan izango da hori, etzi, Zabalotegi aretoan, eta sarrera doan da.

Indarkeria matxista eta gurasoen erantzukidetasuna mozio banatan

- Biak ala biak onartu zituen udalbatzak, aho batez, asteleheneko osokoan
- EAJk eskatutako atez atekoaren bilkura monografikoa egitea ere erabaki zen

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunaren harira, Bilduk, Aralarrek eta EAJk mozio bateratua aurkeztu zuten asteleheneko ohiko osoko bilkuran, eta aho batez onartu zen.

Modu horretan, bikote zein bikote ohi eremuan izaten diren etengabeko tratu txar fisiko eta psikologikoak salatu egin ditu udalbatzak. Emakume izate hutsagatik kolpe, jipoi eta heriotzak gertatzea onartezina iruditzen zaie, eta zenbait konpromiso ere hartu dituzte: batetik, indarkeriari aurre egiteko politika integralari dagokionez, mota desberdinetako neurriak hartzea, besteak beste, heziketan oinarritutako prebentzio neurriak, eraso baten ondorengo neurri asistentzialak edota erantzun soziala artikulatzeari begirakoak. Bestetik, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko konpromisoa ere hartu dute, hitzetatik ekintzetara pasatuz, eta indarrean dagoen legedia aplikatuta. Hori horrela, ahalegina egingo dute indarkeriaren biktima diren emakumeendako arreta programa guztietan aurrekontuak mantentzen. Azkenik, konprometitu dira autodefentsa feministaren beharra transmititzera eta emakumeak animatzera lanketa bereziak egitera eta horretarako bitartekoak jartzera.

Gurasoen erantzukidetasuna

Gurasoen eta seme-alaben arteko bizikidetza apurtzen den kasuetarako Kidetzak –Euskal Herriko ama eta aita banatuen federazioa– Legebiltzarrera eramandako gurasoen erantzukidetasun eta familia harremanen lege proposamenaren gaineko beste mozio bat ere aurkeztu zuen EAJk osokoan, eta hori ere aho batez onartu zuten.

Mozioak jasotzen duenez, adin txikikoen eskubideak bermatu egin behar dira eta gurasoek erantzule egin behar dute, neurri berean, bere garapenaz. Hori arautzea komeni da, eta horregatik proposatu dute gurasoen erantzukidetasunaren lege proposamena Legebiltzarrean.

Mozio horren harira, Bilduko Jabi Bengoak kexua adierazi zuen gazteleraz bakarrik zegoelako. Aintzane Oiarbide jeltzaleak "barkamena" eskatu zuen, eta azaldu zuen testua Kidetzarena zela; ez zuela bere taldeak egin. EAJk berak ere kexua adierazi zuen mozioak "atzerapena" izan duelako. Maiatzaren 21eko osoko bilkurara eroan zuten lehenengoz eta mahai gainean laga zen. Horren aurrean, Jabi Bengoak azaldu zuen atzerapena egon bada izan dela "beste lehentasun batzuk egon direlako", azken batean Udalak "erakunde moduan ezin duelako horretan eragin".

Atez atekoaren monografikoa

EAJk eskatutako atez atekoaren gaineko ezohiko osoko bilkura monografikoaz ere aritu ziren. Eskariari erantzunez Jexux Elortza alkateak esan zuen Gobernuak ez duela "arazorik egiteko", baina oraindik plangintzaren "zirriborroa" baino ez dutela eta bilkurara hori eramatea ez duela egoki ikusten. EAJren aldetik Oiarbidek erantzun zion "denbora asko" dela "informazio eske" dabiltzala. Badakitela, esaterako, Mankomunitateak esleipen batzuk deitu dituela eta gehitu zuen: "Nahiz eta zirriborra izan, zuen planteamendua zein den jakin nahi dugu". Alkateak erantzun zion: "Zehaztuko dugu eguna eta egingo dugu".

Federatu txartelak egiten hasiko dira Pol-Polen bulegoan

Datorren urteko federatu lizentziak egiten hasiko dira Pol-Pol elkartekoak astelehenean, abenduaren 3an. Astelehenetik eguaztenera egingo dituzte lizentziak, 19:00etatik 20:00etara, Udal Pilotalekuan daukaten bulegoan. Mendi taldearen webgunean ere badago federatzeko aukera, *www.pol-pol.net* helbidean jarri duten estekan.

Bestalde, gaur, egubakoitza, amaituko da mendi taldeak hilaren 26an abiarazi zuen bigarren eskuko mendiko materialaren azoka txikia. Hori ere pilotalekuko bulegoan egin dute.

Koldo Arruti | Torrekua erretegiko nagusia

"Gauza asko egindakoa naiz, baina gehien jatetxeak eman dit"

M.B. | BERGARA

Gaur, egubakoitza, egin du azkeneko eguna Ibargarai kaleko Torrekua jatetxean Arrutik. Merezitako erretiroa hartu du. Seme-alabek jarraituko dute jatetxearekin.

Gaur zure azkeneko eguna jatetxean.

Bai, gero erretiroa hartuko dut. Ibargarai kaleko jatetxe honetan 13 urte bete genituen abuztuan, baina aurretik Osintxun izan genuen. 1975ean hasi ginen han; Franco hil eta segituan ireki genuen eta 24 urte eman genituen bertan, 1999ra arte. Urte hartan bertan ireki genuen beste hau.

Zergatik erabaki zenuen jatetxea ipintzea?

Zarautzen taberna bat nuen, Orion beste bat izandakoa nintzen, eta emaztea zena ezagutu nuenean, pentsatu genuen Osintxun bazegoela aukera polita jatetxea jartzeko. Izan ere, nagusia nire anaiaren koinatua zen, eta hark beti esaten zidan bazuela niretzako moduko taberna polit bat. Etorri ginen, ikusi genuen, bioi gustatu zitzaigun eta halaxe hasi ginen.

Zer da tabernak eman dizun onena?

Gauza asko: lagunak, ezagunak, seme-alabak, horien ikasketak... Jatetxea izan aurretik gauza asko egindakoa naiz, baina gehien honek eman dit. Dena den, badu beste aldea ere, ordu asko dira, oso lotua da. Hala ere, saldoa oso positiboa da.

Arruti, jatetxean. | M.B.

Zer egingo duzu aurrerantzean?

Ez dakit zer egingo dudan, baina, behintzat, aspertu egin nahi dut. Gora begira egotea zer den jakin nahi dut. Eta hortik aurrera, zerbait egitea tokatuko da... Zarauzkoa izanda han ibiliko naiz, hemen ere bai...

Seme-alabek jarraituko dute jatetxearekin.

Bai, amaren omenez egingo dute. Orain pare bat astez itxita egongo da egokitzapen batzuk egiteko, eta gero italiar erako jatetxea irekiko dute.

"Bergaratik Debagoieneko etxeetara eta baserrietara banatzen dugu gasolioa"

Olio banaketa, neguko pneumatikoen salmenta eta zerbitzu mekaniko orokorra eskaintzen du Bergarako Laskar enpresak. Negua datorrela eta, erabilgarriak diren zerbitzuak.

"Neguko tenperatura hotzekin, pneumatiko egokiak erabiltzea garrantzitsua da. Gure bezeroei zerbitzu hori bermatu nahi diegu. Mekanika azkarra, garbiketak, olio zein gurpil aldaketak egiteko, zure autoa Bergarako lantegian edo etxean jaso eta leku berean uzten dizugu bueltan."

Bergarako Laskar enpresa familian sortutakoa da. Aitaitak sortua, aitak negozioarekin jarraitu zuen, eta, egun, semeek gidatzen dute. Lauri Askargorta jabeetako batekin izan gara.

Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Hiru alor jorratzen ditugu: batetik, Repsoleko olio banatzaile lanak egiten ditugu Gipuzkoan, bai automozioko tailerretan, baita industrian ere. Bestetik, gasolioa banatzen dugu, gehienbat negu partean, hotza datorrela eta. Eta, azkenik, zerbitzu orokorra ere eskaintzen dugu: mekanika azkarra, garbiketak, olio aldaketak ...

Gasolioa etxeetara eta baserrietara banatzen duzue, bezeroei egokitutako zerbitzua emanez.

Bai, 25 bat urte izango dira berogailuetako gasolioa banatzen hasi ginela, eta beti bezeroaren beharrei egokituta egiten dugu lan. Urte osoan zehar eskaintzen dugun zerbitzua da, baina, udazkena eta negua heltzean, behar eta eskari handiagoak daudela ikusten dugu.

Neguko gurpilekin lanean ere bazabiltzate.

Duela 15 bat urte hasi ginen neguko baldintzetara egokitutako gurpilekin lanean. Gasteizera eta inguruetara lanera joaten zen jendeak edota oporrak mendi aldean igarotzen zituztenek neguko gurpil sendoak behar izaten zituzten. Eta, gaur egun ere, hala gertatzen zaie askori.

Bezeroen fideltasuna kontuan hartzen duzue, gainera.

Zerbitzu berezi bat eskaintzen diegu gurean gurpilak erosten dituztenei: orokorrean, urtaro bakoitzari egokitutako gurpilak erabiltzea komeni izaten da, beharrezkoa dena baino gehiago gasta ez daitezen. Beraz, gurpilok gurean erosiz gero, udakoak zein negukoak hemen gordetzen ditugu. Orain, udazkenean gaudela, bezeroa guregana dator eta negukoak jartzen dizkiogu. Zerbitzu hau debaldekoa da.

ALMACENES LASCAR

Gasolioak, olioak, garbitegia, gurpilak eta mekanika zure zerbitzura.

San Lorentzo poligonoa, Amillaga kalea 32 / BERGARA
Tel.: 943 761038 / 943 761911
E-posta.: a.laskar@laskar.es / www.laskar.es

ZATOZ G

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

UREKIN!

4.000 bazkidek baino gehiagok osatzen dugu Goiena Kluba.

Zer da Goiena Kluba?

Euskara eta euskarazko komunikazioa bultzatu nahi duten debagoiendar guztion kluba.

Abantailak

+ Asteleheneko *Goiena* papera jaso
+ Deskontuak bailarako negozio eta zerbitzuetan
+ Iragarki sailkatuetan eta eskeletan deskontuak
+ Zozketak / Promozioak

Nola egin bazkide?

+ goienakluba.com/bazkide-egiteko
+ Tel.: 943 25 05 05
+ E-posta: kluba@goiena.com
+ Urteko kuota 50€



Bazkide egin zaitez eta
Txopebenta landetxean asteburu baten
zozketan hartuko duzu parte!

Kale neurketak dio gazteek egiten duela gutxien euskaraz

2011ko udazkenean neurtu zuten herriko kaleetan euskararen erabilera

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaletako euskararen kale erabileraren neurketak eman duena aurkeztu dute astean. Neurketa hori 2011ko udazkenean egin zuten Udalak aginduta, eta datuok interpretatu dituen Soziolinguistika Klusterreko kideek eman dute orain horien berri.

%49k egiten du euskaraz

Neurketa egiteko erabilitako metodologia behaketa zuzena izan da; hau da, neurtzaileek kaleetan topatutako jendeak darabilen hizkuntza jaso zuten, ezer galdetu gabe. Bi ibilbide egin zituzten behaketa egiteko: bata, Bedarreta, Santa Kurtz, Errekabarren, Belorrieta, Loramendi eta Markole kaleak; eta bestea, Otalora, Durana, Mitarte eta Herriko plaza. Lau neurraldi egin zituzten, guztira 16 ordu: eguazten arratsaldean; zapatu, goiz eta arratsaldean; eta egubakoitz gauean. Eta emakumeak eta gizonak bereizi zituzten.

2.319 herritarren 786 elkarrizketa jaso zituzten. Eta horietatik %49 elkarrizketa euskaraz izan ziren; %48,9 gazteleraz; eta %2,2 beste hizkuntza batean.

Gazteen artean %36k

Aretxabaletan 1991z geroztik egiten da neurketa hori eta horrek tendentziak jakiteko bidea ematen du. Hala, azken 20 urteotan euskararen erabilera bost puntu igo dela ondorioztatu dute, %43,6-tik %49ra.

Gizon eta emakumeen artean ez dago ezberdintasun handirik –emakumeen erabilera, %51,2 eta gizonen erabilera, %46,7–, baina adin tarteak behatuta alde handiak daudela ikusi dute. Hona lau multzotan banatuta erabilera datuak: umeak (2-14 urte), %70,8; gazteak (15-24), %36,2; helduak (25-64), %39,9; eta nagusiak 65 urtetik gora), %40,9. Hala, gazteak dira egun euskaraz gutxien egiten dutenak, eta neurketa egiten denetik jasotako emaitzarik baxuena da iazkoa.

Behatutako elkarrizketetan umeak dauden edo ez ere hartu dute kontuan. Umeen gehiengoak, bakarrik daudenean, euskara erabiltzen dute (%71,5); helduek umeekin daudenean ere bai (%66); baina helduak bakarrik erdira jaisten da erabilera (%33,2).

DATUA

49

LAGUN

Kalean ehun lagunetik 49k egiten dute euskaraz; beste hainbestek, gazteleraz.

'Euskaraz bizi nahi dut'

Euskararen nazioarteko eguna datorrela-eta, Kontseiluak bihar Donostian egingo duen manifestaziora gonbidatu ditu Udalak herritarrak.

Udaletxean, gainera, *Euskaraz bizi nahi dut* bandera jartzea erabaki dute eta herritarrak ere horretara animatu gura dituzte. Bandera lortzeko, Kontseilura deitu (943 59 12 00) edo udaletxean jakinarazi (kostua: 3 euro + bidaltze gastuak).

MIRARI ALTUBE

Ezkerraren erronkak Matuterekin

Alternatibako kide eta EH Bilduko legebiltzarkide Oskar Matute izan da astean gurean. Hector Prietok egin zion ongietorria, eta ezkerrak dituen erronken gainean jardun zuen Matutek. "Sistemaren krisia" bizi dugula azaldu zuen, eta gaineratu "euskal ezkerraren eraldatzearen ondorioz mundua aldatzen laguntzea dela erronka".

Etxegabetzeen gaineko mozioa eztabaidatuko du udalbatzak astelehenekо ezohiko osoko bilkuran

"Etxegabetzeen egoera larria delako" aurkeztuko du mozioa Bilduk astelehenean, abenduak 3, udalbatzak egingo duen ezohiko osoko bilkuran (18:00).

Joan den astelehenean, hilak 26, egindako ohiko bilkuran sartu gura izan zuten kontua, baina, gai zerrendan sartu barik zegoenez, Aralarko eta EAJko zinegotziek ez zuten eman horretarako oniritzirik, "betiko legez azken orduan aurkeztu zutelako". Hala, ezohiko bilkura deitu dute horren gainean jarduteko.

Buzkantz dastatzea dago gaur, UDAk eta Aretxartek antolatuta

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleta kirol elkarteak eta Aretxartek elkarlanean buzkantza dastatzea eskainiko diete herritarrei gaur, egubakoitza, Pagaldai taberna zaharrean (18:00).

Mokadutxoa eta zozketak

Halako hainbat dastatze antolatu ditu UDAk azken urteotan, elkarterako dirua batzeaz gain herria girotzea beste helburu barik. Oraingoan, gainera, Aretxarte merkatarien elkartea du bidelagun, eta azken egunotan txartelak banatu dituzte bezeroen artean gaurko dastatzea debalde egin dezaten: "Eskerrak eman gura dizkiogu Aretxarteri, denok elkarlanean Aretxabaletak aurrera egingo duelako", diote.

Buzkantzaz gain beste mokadutxo batzuk ere izango dituzte aukeran herritarrek, txistorra eta txorizoa esaterako; eta guztiak euro bate truke. "Ez hotz, ez euri, ez gaitu ezerk beldurtuko denondako lekua dago-eta Pagaldain". Zozketak ere egingo dituztela iragarri dute: Reala ikusteko sarrerak… Eta ekitaldi horrekin Arkupen jarritako erakusketari bukaera emango dio UDAk.

Jose Antonio Pagolak esandakoen gainean hausnartuko dute hilaren 14an eta 21ean

M.A. | ARETXABALETA

Madrilgo 32. Teologia Kongresuan Jose Antonio Pagolak esandakoak hausnartu eta zabaltzea gura du Arrasateko artziprestaldeak, eta Aretxabaletan hasiko dira horretan. Bi saio egingo dituzte: abenduaren 14an eta 21ean. Biak dira Arkupen (19:30).

Madrilen egindako kongresu hori ez da apezpiku-batzar ofiziala, oinarrizko kristauek egindako teologia kongresua, baizik. Eta hausnarketa bideratzeko Pagolak kongresu horretan egindako berbaldia emango dute telebista bidez. Ondoren, hark esandakoen gaineko eztabaida saioa izango da.

Krisiaren gainean

Jose Antonio Pagola (Añorga, 1937) Jose Maria Setien gotzainaren bikario nagusi izan zen eta kritika gogorrak jaso zituen *Jesus, hurbilketa historikoa* liburuagatik; baita zentsura ere elizaren sektore kontserbadoreengandik.

Madrilgo kongresuko saio horren lehenengo atalean krisiaren gainean jardun zuen Pagolak, eta horixe aztertuko dute hilaren 14an: sistema ekonomiko-finantzario baten diktadurapean harrapatuta gaude; zelako krisia da?; haserrea haziz doa; irtenbidea topatzeko beste aukerarik badago?…

Aretxabaletako pastoral kontseiluko kideak Arkupen elkartuko dira horren gainean jarduteko eta edonork parte hartu ahal izango du bertan.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

TXOPEBENTA
Landetxea
Zatoz gurean gozatzera!

Basetxetas 48314
GAUTEGIZ-ARTEAGA (BIZKAIA)
Tel.: 94 625 49 23
629 45 50 79
Faxa: 94 625 49 23
txopebenta@terra.es
www.nekatur.net/txopebenta

8 eta 12 urte artekoek zabalik dute ludoketa domeka arratsaldetan

M.A. | ARETXABALETA

Algara ludotekak dagoeneko hirugarren urtez zabalduko dizkie ateak gaztetxoei, 8 eta 12 urte artekoei, negu partean non egon izan dezaten. Egon bakarrik ez, ekintza mordoa ere izango dituzte.

Irteera izotz pistara

Gazteria Zerbitzuko kideek badakite "8 eta 12 urte artekoak lagunekin kalera irteten hasiak izaten direla", baina neguan, eguraldi txarra tarteko, ez dute egon lekurik izaten. Hori horrela, astean zehar txikienen jolastokia den ludoteka, domeka arratsaldetan (17:00-19:00) gaztetxoen topalekua izango da.

Ludotekako kideek, gainera, adinari egokitutako ekintzak antolatu dizkiete bi orduok aspertu barik pasatzeko. Eta irteeratxo bat egingo dutela ere iragarri dute. Hona antolatutakoak: abenduaren 16an, irteera Gasteizko izotz pistara; abenduaren 23an, mahai-futbol txapelketa; eta urtarrilaren 13an, wiiarekin jolasak.

Ludotekan egingo dituzten ekintza guztiak debalde dira, eta gazteek ez dute bazkide izan beharrik hara sartzeko. Izotz pistara joateko, ostera, aurrez eman behar dute izena, eta 10 euro ordaindu ludotekan edo Gazteria Zerbitzuan (udaletxean); azken eguna abenduaren 13a.

ZER OTE?

Zeintzuk dira Tamazight, Wolof eta Aymara hizkuntzen jatorrizko lurraldeak?

Kaleko zuhaitzetan, Arkupen eta Ibarra kiroldegian, herrian hitz egiten diren hizkuntzen pistekin topo egingo duzue.
Erantzunak jasotzeko postontziak:
Arkupe, kiroldegia, Loramendi eta ikastetxeetan.
Erantzuteko epea: abenduaren 14a.

Aurreko galderaren erantzuna: Aretxabaletan 20 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira, 24 dira guztira.

M.A.

Udazken giroan gaztaina-erreak

Gaztaina-erre Eguna ospatu zuten Arizmendi Ikastolako Basabeazpiko neska-mutikoek joan den egubakoitzean. Urtero legez, aitaita-amamak gonbidatu zituzten ekitaldira, eta, kantuak eta dantzak eskaini ondoren, gaztaina goxoak probatu zituzten guztiek. Trikiti doinuekin eta udazkeneko giro goxoa lagun bukatu zuten ekitaldia.

Judo eskolak emango dituzte 4 urtetik gorako umeendako Ibarra kiroldegian

M.A. | ARETXABALETA

Judo eskolak jarriko dituzte abian Ibarra kiroldegian Arrasateko judo taldeko kideek. Astelehen eta eguaztenetan izango dira, 17:00-18:00, eta 4 urtetik gorako neska-mutikoei egin diete dei –gutxienez 8 lagun gura dituzte abian jartzeko.

Titulu ofiziala eta urtetako esperientzia duten irakasleak izango dituzte gidari umeek: "Jolasean oinarritzen den sistema pedagogikoari esker, arauak, elkarkidetza, norbanakoaren garapena, oinarrizko ezaugarri fisikoak, psikomotrizitatearen garapena, diziplina, errespetua, kirola eta bizitzarekiko jarrera baikorra landuko dituzte", jakinarazi dute judo taldekoek.

Argibide gehiago gura duenak taldeko kide Markeli dei egin diezaiola 634 40 13 28.

OHARRAK

'BYPASS' FILMA EUSKARAZ HELDUENDAKO

Aitor Mazok eta Patxo Telleriak zuzendutako *Bypass* komedia erromantikoa dute helduek euskaraz gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, ostera, *Diario de Greg 3* dute bihar eta etzi (17:00).

KONSTELAZIOEN GAINEKO TAILERRA

Aredhana yoga taldeak antolatuta, arazoak konpontzen laguntzen duen konstelazioen gaineko tailerra (Bert Hellinger konstelazio familia) egingo du Maria Angeles Millan adituak bihar, zapatua, Aretxabaletako egoitzan (10:00 -14:00). Izena emateko telefonoz deitu (Encarna, 616 96 57 95).

LAGUNTZA SOZIALEN GAINEKO BERBALDIA

Hirugarren adina eta laguntza sozialak izena duen berbaldia eskainiko die erretiratuei Maite Peña abokatuak (Gipuzkoako EAJ alderdiko gizarte politikako arduraduna eta Errenteriako zinegotzia). Abenduaren 3an, astelehena, da, Basotxon (18:00), eta landuko dituenen artean daude: dirulaguntzak (pentsioak...), beste era bateko laguntzak (medikuak, eguneko zentroak, zaharren egoitzak)...

Gemes
Irudi aholkulariak
Ilargi plaza 2 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 99 18

Laser diodoaren depilazio
ESKAINTZA BEREZIAK
Emaitza ezin hobeak izango dituzu saio gutxitan!

Gabonetarako zer opari egingo duzun erabaki barik?
Gabonetarako opari-bonuak dauzkagu
Eskatu zurea, anima zaitez!

Iazko arrakasta mantentzea espero dute 'Ti Tau!' lehiaketako antolatzaileek

Abenduan 15ean egingo dute Eingeinkekoek film laburren rallya

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Astelehena ezkero zabalik dago Eingeinke gazte ekimenak antolatutako *Ti Tau!* film laburren lehiaketa, eta dagoeneko hainbat taldek eman dute izena *www.eingeinke.org* webgunean. Joan den urtean ehun lagunek inguruk hartu zuten parte, eta aurten kopuru horri eutsiko diotela uste dute antolatzaileek. Horren harira, Joseba Gabilondok aipatu du gainditzen baldin bada, pozik egongo direla, antolatzaileendako "erronka" izango bada ere. Iazko arrakastaz gain, nabarmendu gura izan du herriko talde asko aurkeztu zirela ikus-entzunezkoetan gutxi jakinda ere, eta izandako ausardia ere baloratzekoa dela.

Iazko edizioko taldea, plazan lanean. | GOIENA

Euskara eta umorea

Abenduaren 15ean egingo duten lehiaketa berrikuntzarekin dator; hain justu, umorezko film laburrak izan behar direla. Horren harira, honakoa dio Gabilondok: "Bizi dugun hondamendi eta tristura garai honi buelta eman nahi diogu, umorez eta alaitasunez. Ondo pasatzea da helburu nagusia". Euskara bultzatzea da beste bat, eta hortaz, lanak euskaraz izan beharko dira; asko jota, azpitituluak euskaraz jarrita aurkeztu ahal izango dira.

Ikus-entzunezko eta umorearekin lotutako lagunek osatuko dute epaimahaia; irabazleek 300 euro jasoko dituzte. Ikusleen saria egongo da aurten ere.

Gabonetako parkerako begiraleak behar dituzte

M.B. | ESKORIATZA

Aurten ere Gabonetako parkea antolatu du Udalak eta dagoeneko zabalik dago horretan lan egin ahal izateko izen-ematea. Begirale moduan jardun gura dutenek curriculuma aurkeztu behar dute abenduaren 10a baino lehen. Bi bide dituzte horretarako: kultura etxean utzita edo *gazteria@eskoriatza.net* posta elektronikora bidalita.

Abenduaren 27an eta abenduaren 28an izango dira kantxako ekintzak, urtero bezala, goizez zein arratsaldez, eta begiraleak behar dira.

PSE-EEk dio Udal Gobernuak ez duela lidergorik

M.B. | ESKORIATZA

PSE-EEko udal ordezkari Jose Luis Cantero "arduratuta" dago, Udal Gobernuaren "lidergo falta" eta alkatearen "ahulezia" dela-eta. Haren esanetan, Herce proiektu zehatz barik eta "bananduta" dagoen gobernuarekin heldu zen alkatetzara; azken horren harira, nabarmendu du ordenantza fiskalez jardun zuten osoko bilkuran beste alderdien eta alkatearen kalitate botoa behar izan zituela etxebizitza hutsen OHZ errekarguaren proposamena aurrera ateratzeko.

Dispertsioa "behingoz" amaitzeko eskaera egin du Udalak

M.B. | ESKORIATZA

Hilaren 12tik 22ra Marixol Iparragirrek izandako epaiketaren harira mozioa onartu zuen udalbatzak azaroko osoko bilkuran. Bost puntuz dago osatuta: batetik, Aieteko adierazpenarekin bat egiten du, Euskal Herriak bizi duen gatazka egoera konpontzeko bide "egokitzat" hartuz; bigarrenik, Espainiako eta Frantziako gobernuei adierazpenaren bigarren puntua bete dezatela eskatzen die, eta gatazka konpontzeko pausoak ematen hasteko. Horren harira, Iparragirreren epaiketak gatazkaren luzapena eragiten duela salatzen du.

Hirugarrenik, adierazpenaren puntu hori betetzeko pausoen artean, Iparragirre, Gorka Azpitarte eta gainontzeko presoak Euskal Herrira ekartzeko eskaria egiten du, dispertsio politika "behingoz" amaituz. Aldi berean, Iparragirre eta senideei elkartasuna helarazi eta presoaren eskubideak errespetatuak izan daitezela eskatzen du. Azkenik, udalbatzak onartutakoaren berri emango dio Udalak Iparragirreri eskutik bidez.

Epaiketaren ondotik, eskoriatzarren aurkako 20 urteko kartzela zigorra berretsi dute Frantziako epaileek.

Urtarriletik, laugarren asteko martitzenetan izango dira osoko bilkurak

Azaroaren 15ean egindako osoko bilkuran, ohiko batzarrak egiteko eguna aldatzea onartu zuten udal ordezkariek. Orain arte hilaren hirugarren asteko eguenetan izan badira ere, urtarriletik aurrera laugarren martitzenetan egitea adostu zuten. Abendukoa dagoenetan mantentzea eta eguenean egitea erabaki zuten.

Orri puntuen lehiaketarako lanak aurkez daitezke

Datorren urtean Udal Liburutegian erabiliko den orripuntua aukeratzeko lehiaketa deitu dute. Lanak liburutegira eroan beharko dira abenduaren 10a baino lehen. Lehiaketa horretan edozeinek har dezake parte. Irabazleak 250 euro jasoko ditu sari moduan.

OHARRAK

EKINTZAK LUDOTEKAN

Tortolis ludotekan ekintza berezi bi daude gaur arratsaldean: 17:00etan, Divermagic tailerra, eta 18:00etan, mahai-futbol txapelketa.

EUSKARAREN EGUNA

Euskararen Eguna dela-eta, ekintza asko izango dira oraingo asteburuan herrian. Gaur, egubakoitza, gaztainak jateko aukera egongo da plazan, 18:30ean. Batutako dirua Korrika 13rako izango da. Gauean, 22:30ean, *Gazta zati bat* ikus-entzunezkoa ikusi ahalko da Ibarraundi museoan. Horretaz gainera, bihar eta etzi, *Euskaraz bizi nahi dut* izeneko bideoa muntatzen ibiliko dira herriko gazteak. Bestalde, etzi, *Monster House* umeendako filma izango da Ibarraundin, 17:30ean.

NIRE USTEZ

TXOMIN AZPITARTE

Mundua nahastuta

Betiko moduan mundura begira nago, Alizia herri miragarriaren ispiluan islatuta. Alde errealean kokatzen bagara, familiari dagokionez, gure semearen ezkontza eta ilobaren lehen urtebetetzea moduko gertaera garrantzitsuak ikusten ditut. Horrez gainera, udazkenaren kolore ederrak, Gabonen gertutasuna edo lan egoera kaskarra ere badaude, besteak beste.

Ispiluaren beste aldean (arrainek hegan egiten eta animaliek berba egiten duten munduan), irrealean, gertaera motelak daude; tartean, Euskal Herriko herrietan, eta baita Eskoriatzan ere, Espainiako bandera jartzeko inposizioa. Hartutako erabakia txalotzen dut, herrian bizi direnen nazionalitatetako banderak jartzearena.

Horrek distrakzioa eragin gura duela ematen du, krisi ekonomiko eta politiko gogorrean murgilduta dagoen Estatuaren benetako egoera ezkutatzeko. Euskal Herriaren bake prozesuari dagokionez, duen parte-hartze eskasa eta, besteak beste, preso eta exiliatuen egoeraren gainean lan egiteko irtenbidea topatzeko konpromisorik ez duela agerian geratu da. Banderen auziarekin bestelako arazoak ezkutatzea bilatzen du; tartean, lana sortzeko inbertsiorik ez egitea.

Alde errealera itzuliz Gabonak ondo pasatzea espero dut, eta Olentzerok ispiluari buelta ematea, mundu errealean bizi gaitezen. Garrantzitsuena indarrak batzea da.

"Olentzerok ispiluari buelta ematea espero dut"

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

Alonsoren 'Gorria eta berdea' lanarendako sari nagusia

Argazki lehiaketako lanak ikusgai dituzue asteburuan, Olaran etxean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Inoiz egon den parte-hartze handiena izan du aurtengo gai libreko argazki lehiaketak. Aurkeztutako 51 lanak ikusteko aukera asteburuan ere baduzue.

18 urte daramatza Kultura Sailak lehiaketa antolatzen, eta aurtengoa edizio arrakastatsuena izan da; guztira, 51 lan aurkeztu dituzte. Jone Larrañaga Kultura teknikaria gustura eta pozik ikusi dugu lehiaketak izan duen erantzunarekin.

Sarituak

Helduen mailan, saria Iñigo Alonsorendako izan da, *Gorria eta berdea* lanagatik; bigarrena, Sergio Morenorendako: *52*.

6-12 urte artekoen artean, *Ehiztari ehizatua* Irati Lizarralderen lanak jaso du lehen saria. Bigarrena, *Gominolak* argazkiak, Ane Kerexetarena.

Eta 13-18 urte artekoen mailan, Endika Mataren *Iluntzea* argazkiak eta Mairi Olabarriaren *Asis I.* lanak jaso dute saria.

Herritarren botoa

Epaimahai ofizialaren sariak eta herritarren iritziak ez dute bat egin. "Polita izan da herritarren sariak epaimahaiaren aukeraketatik ezberdinak izatea; gainera, herritarrek aho batez garbi zuten saridunak nortzuk izango ziren", nabarmendu digu Jone Larrañagak. Hala, ikuslearen saria Unax Errastiren *Sua,* Mairi Kobarriaren *Asis II* eta Koldo Lizarralderen *Alanos mendikatea* lanek eraman dute.

Gorria eta berdea lanak irabazi du sari nagusia. | IÑIGO ALONSO

Sergio Morenoren *52* argazkiarendako helduen bigarren saria. | SERGIO MORENO

Aipamen berezia, bihotzeraino

Ilusioz eta pozik dago Alaitz Jauregi errekonozimendu polit honekin. "Intuizioa jarraitu eta *plas!* xarma berezia duen argazkia atera". "Sorpresa izan da aipamen berezia jasotzea; benetan, jaso nukeen oparirik onena izan da epaimahaia 'ukitu' duelako". Bihotzeraino heldu zaiela aitortu digu epaimahaiak.

Aipamen berezia egin dio epaimahaiak *Paaa!* lanari. | ALAITZ JAUREGI

NIRE USTEZ

PATXI KORTABARRIA

Ai gure Rouco!

Berrize bere kruzadiakin! Espainiako Obispuen Asanbladak homosexualen arteko ezkontza legiaberriz be legez kanpo uztia eskatuko dabela leitxu dot oin gutxi. Seguru egon barik, ez dot inoiz entzun Ebangelixuak homosexualen arteko mobidei buruz zeoze esaten dabenik. Edozein modutan, igual da. Bi pertsonak, edo gehixao eron artian konforme egon ezkero, bere maitxasuna libre erakutsi eta bizitzeko eskubide osua dauke, inon edo inongo traba barik.

Eskubidiak, bere bukaeria bestien eskubidiak hasten dien tokixan egon biko liake. Ez dao beste arazoik? Langabezia, norberan etxetik bialtzia, emakumiei egurra, inmigrazinua, laister emigrazinua... Itun Berrixan arabera, Jesukristok merkatarixak tenplo aurretik bialduzittuan, ez oingo moduan gure Rouco egun guztixan eron gonapian jardun. Benedicto bera be, modan daela eta, Trilogiak idazten hasi jaku. Pagolaren *Jesus* debekau eta Aitta Santuan *Jesus de Nazaret* abonboyplatillo argitarau. Nik Salander eta Greyrekin jarraitzia nahixao. Domekero eliz barrutan banko gehixao libre egotia izan leike holako jarreren emaitza. Ez dot nahi benetan inportantienakin ahaztu. Elizian barruan be Kriston lana indako eta itxen daben pertsonak, asko dae eta.

Oin hilabete jun zan Tomas abadiai in zeban lan danagaittik, eskerrik asko.

"Oin hilabete juan zan Tomas abadiai in zeban lanagatik eskerrik asko"

Brigadako bi peoi kontratatzeko deialdia egin du Udalak

Obra eta zerbitzu anitzen lantaldeko langile argiketaria eta zerbitzu anitzen lantaldeko langile balioanitza kontratatzeko deialdi publikoa egin du Udalak. Lehiaketa oposizio bidez egingo da eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dituzue.

Sortu eratzeko lehen herri batzarra bihar egingo da Olaranen

Sorturen oinarriak erabakitzeko prozesua burutuko da. Horretarako, hiru eztabaida nagusi egingo dira, oinarri ideologikoari, ildo politikoari eta antolaketari dagozkienak. Bihar, 09:00etatik 12:30era, Olaranen.

OHARRAK

HELDUENDAKO IPUINAK

Emakume basatia izeneko ipuin sorta kontatuko du, euskaraz, Maider Galartzak, 22:00etan, Torresoroan.

ARROLA

2013rako mendiko federatu txartela Arrolaren bidez egin nahi dutenek abenduaren 10ean daukate aukera.

AZAROKO IRABAZLEAK

Bazkidetu eta Txopebenta landetxean asteburu baten zozketan hartuko duzu parte!

goienakluba 2012

Pendrive
• Jesus Belamendia Agirre (Elgeta)

Umeentzako jokua
• Oihana Agirre Inza (Bergara)

Liburuak eta DVDa
• Maria Lazkano Balanzategi (Arrasate)

DVD erreproduktore bat
• Oihana Jausoro Agirre (Aretxabaleta)

Eureka! Zientzia Museoa
• Aitor Urzelai Arrizabalaga (Oñati)
• Ramon Osinaga Egidazu (Arrasate)
• Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)
• Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)
• Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)

Zarzuelarako sarrerak
• Imanol Aginagalde Aranzabal (Aretxabaleta)

Concierto Conceptorako sarrerak
• Maite Arana Osinaga (Arrasate)

Zuloak kontzerturako sarrerak
• Ane Loidi Astigarraga (Antzuola)

Txarango + D-pintxos kontzerturako sarrerak
• Arantzazu Uribesalgo Muxika (Arrasate)

ZORIONAK, GUZTIOI!

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com* | Urteko kuota: **50 €**.

Batzokia ireki zela 100 urte, eta giro politikoa islatzeko liburua

Iñigo Urkullu egongo da biharko aurkezpenean

Zabala, Mondragon eta Velez de Mendizabal, lehengo batzokiaren atarian. | J.B.

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Duela 100 urte, 1912an, sortu zen batzokia Aramaion. Araba osoan ireki zen hirugarren batzokia izan zen. Bada, urteurren berezia aitzakia hartuta, Aramaioko Uri Buru Batzarrak liburu bat egiteko eskatu zion Jose Mari Velez de Mendizabal Aramaioko seme kutunari. Eguaztenean ikusi zuen argia liburuak: *Aramaioko batzokia: 100 urte*. Bihar aurkeztuko da liburua, kultur etxean (12:00). Iñigo Urkullu lehendakarigaiak hartuko du parte aurkezpenean.

Atzo egin genuen hitzordua liburuaren egilearekin eta Aramaioko Uri Buru Batzarreko Jesus Zabala eta Mertxe Mondragonekin. Egilearen arabera, liburuaren ardatza Aramaioko abertzaletasunaren jatorria da. Izan ere, liburuaren ondorioetako bat da garai hartarako Aramaion indar abertzalea bazegoela: "Sorreran bertan askoz afiliatu gehiago zeuden Aramaion Gasteizen baino". 1912 eta 1915 bitartean 80 bat afiliatu zeuden. Hori bai, indar hori gutxiengoan zegoen; izan ere, Aramaion eta Euskal Herrian, oro har, karlismoa zen nagusi.

Karlismoaren eta jeltzaleen arteko harreman txarraren adibide da honako bitxikeria: "Jeltzaleek begiz jota zuten batzokia zabaltzeko lokal bat, eta 1912ko uztailaren 25ean inauguratu gura zuten. Baina karlistak asmo horien berri jaso eta lokala erosi zuten, batzokirik ez izateko. Izan ere, garai hartan karlistak edo *jaimistak* ziren boterean zeudenak eta erositako lokal horretan zentro katolikoa sotu zuten". Lokala duela gutxi itxitako Kukuena denda zen.

Ideologia jeltzalea oso goiz

Velez de Mendizabalen arabera, "bitxia" da EAJ 1908an sortu bazen lau urtera Aramaion batzokia irekitzea: "Lau urteko tartea besterik ez, azkar ireki zen batzokia Aramaion. Hori harritzekoa da geografikoki bailara estu eta galdu baten gaudela kontuan hartzen badugu. Beraz, berehala heldu zen Aramaiora Bizkaiko Sabino Aranaren ideologia hura".

ESANAK

"Berehala heldu zen Aramaiora Sabino Aranaren ideologia, lau urte besterik ez"

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL | EGILEA

"Orduko egoera garrantzitsua izan zen gure herriko historia ulertzeko"

JESUS ZABALA | ARAMAIO URI BURU BATZARRA

Informazio bilketa, "oso zaila"

Liburua egiteko informazioa nola bildu duen argitu digu egileak: "Lan oso zaila izan da, 1912ko albisterik ez dugulako. Urte hura nolabait girotu egin behar izan dut eta horretarako 20 bat urte egin dut atzera, XIX. mendeko azken urteetara, Aramaioko giro politikoa nolakoa zen jakiteko. Gero, 1912tik aurrera luzatu egin naiz 1923ra arte, hain zuzen Primo de Riveraren diktadurak udalak disolbatzen dituenera arte".

Batzokiaren material grafikorik ez dago, eta, informazioa lortzeko orduan, Roman Berriozabal Arabako Uri Buru Batzarreko kideak aurrez egindako lana aprobetxatu du egileak: "Ikerketa lan bat eginda zuen eta lan horretan oinarritu dut batez ere ikuspegi orokorra. Gero, Aramaioko giroari forma edo itxura emateko udal aktetan arakatu dut. Eta, bestalde, hemeroteka ezberdinetan ere ibili naiz informazioa apur bat jasotzen".

Aramaioko Uri Buru Batzarreko Jesus Zabalak adierazi digu nondik sortu zen liburua egiteko ideia: "Roman Berriozabalek eman zigun dataren berri, eta, informazioa zegoenez, pentsatu genuen liburutxo bat egitea. Izan ere, orduko egoera garrantzitsua izan zen gure herriko historia ulertzeko".

Azkenik, ez dute zalantzarik izan lana Velez de Mendizabali eskaintzeko: "Aramaioarra da, herriko seme kutuna, eta gustuz hartu zuen gonbidapena".

Alex Txikonek gidatutako bideo emanaldia gaur

2011ko neguan Gasherbrum I-era egindako espedizioa izango du hizpide, Sastiñan (20:00)

J.B. | ARAMAIO

Alex Txikon alpinista lemoatarraren bisita izango dugu gaur Aramaion. Orixol mendizale elkarteak antolatuta, 2011ko neguan Gasherbrum I-era egindako espedizioa deskribatzen duen *Next time in Inshallah* dokumentala aurkeztuko du. Gerfried Göschl austriarrarekin eta Louis Rousseau kanadiarrarekin batera, Txikon bera da protagonista; 20:00etan da hitzordua, Sastiñan. Azaldu digunez, bideoaren aurretik 20 minutu inguruko "berbalditxoa" egingo du eta gero dokumentala jarriko dute: "Amaieran beti egoten dira galderak, eta horiek erantzuten beste tartetxo bat egingo dugu", dio. Era berean, gaineratu du "oso pozik" dagoela Aramaiora lehenengoz etorriko delako.

Dokumentaleko une bat. | F. DE PINEDO

Bazkide eta federatu kanpainak

Bestalde, iritsi da 2013ari begira mendian federatu edota elkartean bazkide egiteko unea. Abenduaren 10era bitartean bazkide eta federatu berriak egiteko aukera egongo da. Horrez gain, dagoeneko bazkide eta federatu direnek aldaketaren bat egin gura badute, bi telefono hauetako batera deitu beharko dute: 635 00 88 57 (Mikel) eta 665 73 49 52 (Gillen).

Indarkeria sexista salatzeko plaza bete

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunerako Udalak deitutako elkarretaratzea "oso arrakastatsua" izan zen, deitzaileen arabera. Eguazteneko osoko bilkuran ere azpimarratu zuten adin guztietako herritarrak agertu zirela, gizon zein emakume.

ALEX MENDIKUTE

65 urtetik gorakoen beharrak identifikatzeko inkestak egingo ditu Aztiker enpresak, Udalak hala eskatuta

Udaleko Ongizate Sailaren ekimenez, Aztiker enpresak inkestak egingo ditu abenduaren 3tik aurrera. Helburua da 65 urtetik gorakoen egoera zehaztu eta beharrak identifikatzea, Udaleko zerbitzua hobetzeko. Inkestatzaileak aramaioarrak direla nabarmendu dute deitzaileek, eta inkestatuei eskatu diete euren beharren berri emateko. Emaitzak urtarrilean emango dira aditzera.

'Gazta zati bat' dokumentala ikusteko aukera etzi kultur etxean, Udalaren eta Txirritolaren eskutik

Udalak eta Txirritola euskara elkarteak antolatuta, Jon Maia bertsolariak zuzendutako *Gazta zati bat* dokumentala Aramaioko kultur etxera helduko da domekan, 18:30ean. Maiaren lanak euskal gatazkaren gaia era berritzailean aurkezten du: gertakizun handien hurbileko begirada eskaintzen du, historia handia letra txikiarekin kontatuz; gertutasunez, intimismoz eta umorez.

Euskararen Eguna ospatzeko hainbat ekintza San Martin eskolan eta Udal Liburutegian

Euskararen Eguna dela-eta, San Martin eskolan euskaraz idatzitako komikiak izango dira aurtengo gaia. Besteak beste, tailerra eta erakusketa izango dute, eta, gainera, Ainara Aspiazu marrazkilari donostiarrak saioa egingo du ikasleekin. Abenduaren 4an, berriz, Irrien Laguneko kide Marikalanbreren bisita izango dute goizean 3 eta 7 urte arteko ikasleek, Udal Liburutegian.

Lizarrako Ereintza abesbatzaren emanaldia San Martin elizan, domekako mezaren ostean

Bizente Goikoetxea abesbatzak Euskal Herriko beste koru batzuekin duen harremana aprobetxatuz, domeka honetan Lizarrako Ereintza abesbatzaren bisita izango dugu. Kontzertua San Martin elizan izango da, meza ostean. 11 kantu abestuko dituzte, tartean *Tebe Poem*, *Ave María*, *Baratze bat*, *Maitea galdegin zautan* eta *Goiko mendian*.

ELGETA

Hilabeteko epean egin beharko ditu Udalak Asentzioko hezeguneko lanak

Udalbatzak, bestalde, herriko txabolen errolda eguneratzea erabaki du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako udal ordezkarien artean hautsak harrotu zituen otsailean Asentzioko hezegunea berreskuratzeko proiektuak. Geldirik egon da orain arte, baina martitzeneko osoko bilkuraren ondotik lanok aurrera egingo dute. Hori bai, urtea bukatu orduko amaitu beharko ditu Udalak.

Udalak Asentzion erosiko duen lursaila. | L.Z.

Lursail baten erosketa

Etxe eta guzti Gure Borda osteko lursaila erosiko du Udalak. Prezioa 108.183 euro da. Erosketa gauzatutakoan Eusko Jaurlaritzako Ihobe agentziak diruz lagunduta biodibertsitatearen garapenean laguntzea helburu duen harrizko horma altxatuko dute Gure Bordaren eta erositako lursailaren ondoan. "Zuhaitz autoktonoak ere landatuko ditugu, bai lursail horretan, bai Udalak Asentzion daukan beste batean", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak.

Abendua izango du Udalak lanok egiteko; izan ere, urtea amaitu aurretik bukatuta ez badaude, Eusko Jaurlaritzako Ihobe Ingurumen agentziaren dirulaguntza galtzeko arriskua dago: 168.456 euroko dirulaguntza, hain zuzen ere.

Erabakia Udal Gobernuaren eta EAJko botoen babesarekin atera da aurrera. Hain zuzen, Bilduko ordezkari Janire Lazkanok osoko bilkuran adierazi zuen ez daudela proiektuarekin ados eta azkenean korrika eta presaka egingo direla lanok.

Lanen atzerapenari dagokionean alkateak azaldu du udal gobernuaren konpromisoa zela Domingo Iturbeko lanen finantzazioa argitu arte Asentzioko proiektuarekin ez hastea. Bestalde, tarteko izan da erositako lursailaren jabearen heriotza.

Txabolen inbentarioa

Udalbatzak, bestalde, herriko txabolen errolda eguneratzeko erabakia hartu du. 40 bat txabola daude egun Udalaren erroldan, baina gehiago egin dira. "Batzuk dagokion baimen eta lizentziak eskatuta eraiki dira, baina beste batzuk ez", esan du Erostarbek. Lizentzia barik daudenak legeztatzeko aukera emango du orain Udalak. Hala, txabola jabeek egunotan jasoko dute jakinarazpena. Txabolaren kokapenaren, neurrien eta erabileraren inguruko informazioa eskatuko zaie.

Domekan 'Elgetan euskaraz!' aldarrikatzeko deia herritar guztiei

L.Z. | ELGETA

Domekan, abenduak 2, egingo du Udalak ekintza nagusia, 13:00etan. Adin guztietako herritarren parte-hartzea eskatu du irudi erraldoia egiteko. "Banatuko ditugun kartulinak eskuan hartu, eta koloretako irudi erraldoia egingo dugu", azaldu dute Udaletik. Asmoa da ehun bat lagun elkartzea, eta osatutako irudiari udaletxeko balkoitik argazkia ateratzea.

Euskararen Eguna animatzeko, domeka goizean euskal jinkana eta arratsaldean DJ saioa egongo dira.

Liburuak eta zinema

Astelehena, Euskararen Eguna, eskola egun berezia izango da. Arratsaldean, berriz, euskal liburuen erakusketa egingo dute Udal Liburutegitik eta 18:00etan euskarazko pelikula bat emango dute ludotekan.

DOMEKAKO EGITARAUA

11:00 plazan, Euskal jinkana umeendako.

12:00 salda eta txorizoa guraso elkartearen eskutik.

13:00 irudi erraldoia herritarrekin + argazkia.

17:00 Espaloian, DJ saioa Amaia Txintxurretarekin.

IX. PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK	
Iker Irazabal-Jabier Larrañaga / Asier Morales-Fernando Zenitagoia	16-22
Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre	22-16
Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Sergio Bouzas-Jon Irazabal	22-17
Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga / Pello Larrea-Mikel Elkoro	11-22
Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe	22-20
Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua	22-14
Mikel Ormaetxea-Haritz Makarro / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta	12-22
Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Igor Irazabal-Enrike Elkoro	22-13

GAURKO PARTIDUAK, 19:00ETAN HASITA

Mikel Ormaetxea-Haritz Makarro / Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe

Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Asier Morales-Fernando Zenitagoia

Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga / Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre

Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta

DOMEKAKO PARTIDUAK, 10:00ETAN HASITA

Sergio Bouzas-Jon Irazabal / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta

Igor Irazabal-Enrike Elkoro / Iker Irazabal-Jabier Larrañaga

Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Iban Retolaza-Diego Cantabrana

Odol-ateratzeak astelehenean, 18:00etan

L.Z. | ELGETA

Astelehenean, abenduak 3, odola emateko aukera egongo da Elgetatik mugitu barik. Sendagile eta erizain taldea 18:00etatik 20:00etara ariko da lanean udaletxeko beheko solairuan.

Esan gabe doa odola ematea oso garrantzitsua dela. Urrian Gipuzkoako odol emaileen elkarteak Elgetan egindako ekitaldian nabarmendu zuten odol-emaile gazteen premia handia dela. Dei berezia egiten zaie elgetar guztiei.

Herritarren saria ere Maialde landetxeko pintxoak eraman du

L.Z. | ELGETA

Publikoak bat egin du Elgetako V. pintxo lehiaketako epaimahai ofizialarekin, eta Maialde landetxeko pintxoak eskuratu du aurten lehenengo aldiz egin den Herritarren Saria. Bi aste bukaeratan egon da botoa emateko aukera, eta tabernetan jasotako botoen %36,61 izan du Jesus Mari Kalboetxeaga gertatutako pintxoak.

Maialde landetxean pozik hartu dute albistea. "Errekonozimendu bat da, eta asko eskertzen da", adierazi du Kalboetxeagak. "Lehiaketara aurkezten ditugun pintxoak, azken finean, gure lanaren erakusgarri dira. Ez dut ukatuko lehiaketa izanik mimo eta atentzio berezirik ipintzen ez dugunik, baina askorik konplikatu barik. Publikoari pintxoa gustatu bazaio, horrek esan gura du gure lana gustatzen zaiola, eta, azken finean, hori da gure helburu nagusia."

Balorazio positiboa

Turismo batzordeak pintxo lehiaketaren balorazio positiboa egin du. Boto-emaileen artean, berriz, bi lagunendako otordua egin dute zotz, eta eman dute aditzera irabazlearen izena: Fernando Olaortua, hain justu.

Gaur, 18:30ean, saskibaloi jarduera irekia gimnasioan

Gaur, barikua, Bergara Kirol Elkarteko kirol teknikari Alex Gardoki Elgetako gimnasioan izango da gazteendako saskibaloi saio irekia egiten. Ume guztiendako saioa da, bereziki 6. mailakoendako datorren urtera begira saskibaloia aukera izan dezaten Bergaran.

Oñatiko Ikusi Makusikoen antzerkia eguaztenean, 17:30ean

Azaro hasieran estreinatu zuten Oñatiko Ikusi Makusi erretiratu elkarteko lagunek *¿Donde está la pierna del alcalde?* antzezlana. Eguaztenean, abenduak 5, Elgetan izango dira, Xalbadorpe elkarteko erretiratuek gonbidatuta. 17:30ean hasiko da, Espaloian.

LEINTZ GATZAGA

Komisioak osatu ditu Gurelek, lan jarduna hobeto antolatzeko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Joan den domekan elkartu ziren Gurel guraso elkarteko kideak diru kontuen gainean jardun eta aurrera begirako asmoak zehazten joateko. Hala, komisioak osatzea adostu zuten, zuzendaritzako kideen lan jarduna arindu eta lanak hobeto banatzeko asmoarekin.

Ume eta heldu, 35 bat lagun elkartu ziren domekan, eta loreak eta zuhaixkak landatu zituzten goiz partean, herriko hainbat bazterretan: "Neguko landareak sartu genituen, tartean pentsamenduak, hortaz, hotzari ere egingo diote aurre", jakinarazi zuten. Eta lanak egindakoan bazkaltzera joan ziren Toki Eder elkartera. Bertan elkartuta zeudela egin zuten lan bilera, eta datozen hilabeteotarako asmo batzuk bota zituzten gurasoek: irteera bat egitea hilero; negu partean ikastaroak antolatzea; antzezlanen bat ekartzea… Horiek guztiak antolatzeko taldetxoak edo komisioak sortzea erabaki zuten: "Euskara, irteerak, ikastaroak… taldeak osatu ditugu, ardurak banatuta hobeto funtzionatuko dugulakoan", diote. Zuzendaritza batzordeari, ostera, otsailean tokatzen zaio berritzea.

Udalaren aparkalekuen zozketa hilaren 11n da eta zerrendak ikusgai daude

M.A. | ARETXABALETA

Pilotaleku azpiko udal garajeak eskatzeko epea bukatu da, eta onartuen eta baztertuen zerrendak osatuta daude. Zerrenda horiek behin-behinekoak dira, eta udaletxeko iragarki taulan daude jarrita. Abenduaren 5a bitartean izango dute aukera herritarrek zerrenda horiek kontsultatu eta ados egon ezean erreklamazioa aurkezteko. Tarte horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartuko dituzte.

Bestalde, garaje plazak banatzeko zozketa abenduaren 11n, martitzena, egingo dute, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (18:00). Automobilendako 18 leku daude eta motor eta quadendako bakarra.

ESKUBALOIA

Arrasateko eta Bergarako entrenatzaileak bat datoz: "Indarrak inoiz baino parekatuago daude"

- Soraluce BKEk eta Ford Mugarri Arrasatek derbia jokatuko dute bihar Labegaraietan, 18:45ean
- Herreroren mutilak lider dira, baina Muniategirenak Leioan erakustaldi ederra egitetik datoz

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Zapatuan Euskadiko Txapelketan lehian dabiltzan Soraluce BKE eta Ford Mugarri Arrasate izango dira zein baino zein gehiago (Labegaraieta, 18:45). Azken urteotan Arrasatekoak gehiago izan dira, eta Bergara aldean badago errebantxa hartzeko gogoa, aparteko motibazioa. Gainera, joan den astean Quiron Askartzari Leioan errepasoa eman ostean mahoneroak ligako unerik gozoenean daude: "Badirudi hala dela, baina egia da, baita ere, oso irregular gabiltzala. Joan den astekoa ez da egunero gertatzen den zerbait, eta zaila izaten da halako egoera puntual bat ostera errepikatzea, joko-maila horri eustea", diosku Josetxo Muniategi entrenatzaile bergararrak: "Normalean, halako gorakaden ostean etortzen dira kolpe handienak", dio barrez, "Baina bai, Arrasateri irabazteko gogoz gaude".

Arrasateko taldean aurreko edizioetan baino zailtasun handiagoekin dabiltza, eta gezurra dirudi, joan den astean lider jarri zirelako: "Ez gabiltza ondo jokatzen, baina hala ere aurrera ateratzen ditugu partiduak", dio Ane Herrerok. Bada, hori ez da seinale txarra, baina aurten entrenatzaile arrasatearrak ez ditu iaz beste jokalari eskura: "Hainbat taldekide lesionatuta ditugu. Pello Olaberria eta Masip lesionatuta ditugu, eta Josuk [Herrerok] bihurritua egin zuen aurrekoan eta zapatura arte ez dugu jakingo jokatzeko moduan egongo den".

Kontrarioa gertutik zainduz

Muniategik ondo ezagutzen ditu Arrasatekoen baja horiek: "Bai, hainbat jokalari lesionatuta dituzte, baina partidua irabazteko gure jokoa ezarri beharko dugu, eta ondo jokatu, bestela jai dugu. Baina bai, azken urteotako derbi parekatuena izan daiteke". Herrero ere uste berekoa da: "Partidu zaila izango da, Bergarakoek Labegaraietan puntu batzuk oparitu dituzte, baina behetik gora datorren taldea da eta joan den astean lider zegoen Askartzari bost goleko aldeaz irabazi zioten".

Iaz Bergaran jokatutako derbiko irudian, Bergara erasoan. | JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

"Orain gaude momentu gozoan, baina egia da irregularrak garela jokoan"

"Joan den asteko moduko gorakaden ostean etortzen dira kolpeak"

JOSETXO MUNIATEGI | SORALUCE BKE

"Bergarak puntu batzuk oparitu ditu etxean, baina behetik gora datoz"

"Ondo jokatu barik puntuak ateratzen ari gara; baina partidu zaila izango da"

ANE HERRERO | FORD MUGARRI

Seat Ibiza autoa, aurretik, Nafarroako Openeko proban. | ARRASATE TRT

AUTOMOBILISMOA

Orobengoa anaiak eta Aitor Arnaiz, Alcañizko 500 kilometroetan, bihar

X.U. | ARRASATE

Lerro hauek irakurtzen dituzuenerako Arrasateko TRT Racing taldeko kideak Alcañizen izango dira (Aragoi), bihar, zapatua, egingo duten 500 kilometroko erresistentzia lasterketari begira entrenamendu pribatuetan buru-belarri.

Debagoienekoekin batera lehiatuko dira Espainiako, Italiako eta Ingalaterrako beste 42 automobil, hainbat kategoriatan banatuta.

Orobengoa anaiak eta Arnaiz

Zirkuitutarako prestatutako Seat Ibiza autoa gidatuko dute Igor eta Iker Orobengoa anaia arrasatearrek eta Aitor Arnaiz oñatiarrak. Iaz Nafarroako Opena irabazi zuten, baina orduan Igorrek egiten zituen pilotu lanak. Biharkoa lau orduko lasterketa izango da, hiru piloturendako lana, eta horretan berriak dira. Gainera, mekaniko lanetan jardungo duten lagun-koadrila izango dute ondoan.

Hala, gaurko lan-saioari etekin guztia atera beharko diote: "Autoko azken torlojua ere errepasatu dugu, eta dena dugu gertu. Dieseldun autoa dugu, eta asmoa da kontrarioek baino geldialdi bat gutxiago egitea. Proba amaitzea da asmoa, baina ez dugu aurrean egotea baztertzen".

FUTBOLA

Bergarak lider dagoen Hernani hartuko du bihar Agorrosinen

Ohorezko erregional mailako 12. jardunaldian ibarreko ordezkari denek jokatuko dute etxean. Bisita gogorrena, baina, mahoneroek izango dute, Neka Galanen mutilek lider dagoen Hernani izango dutelako aurrez aurre bihar (15:30, Agorrosin). Gainontzekoek domekan jokatuko dute, Mondrak Urolaren kontra (16:30, Mojategi), Ostadarren kontra Aretxabaletak (16:30, Ibarra) eta Tolosaren kontra Aloña Mendik (16:30, Azkoagain).

FUTBOLA

Mikel Gonzalezek 200 partidu beteko ditu, Valentzian jokatuz gero

Zapatu arratsaldean jokatuko du Realak Valentzian (18:00), eta, arrasatearrak Mestallan jokatzen badu, 200. partidua izango du elastiko zuri-urdinaz. Realeko webgunean adierazi du lehenengo taldeaz jokatutako partidu guztiez oroitzen dela, eta, zifra bat baldin bada ere, poztekoa dela: "Urteak aurrera doazen seinale da, eta taldean jarraitzen dudan seinale. Klub honetako kide izateaz pozik nago, eta halaxe jarraitu nahi dut", adierazi du arrasatearrak.

ATLETISMOA

Beñat Arnaiz triatletak lagunduta, korrika saioa egiteko hitzordua egin dute biharko

X.U. | ARRASATE

Debagoieneko puntako triatleta batek lagunduta korrika saioa egiteko hitzordua egin du Loramendi Intersport dendak. Hala, asmoa izango da lagunartean korrika egitea. Hitzordua bihar izango da, zapatua, eta bi ibilbide izango dituzte aukeran, motza 5 kilometrokoa –hasiberriendako izan daitekeena–, eta luzeagoa 10 kilometrokoa (parte-hartzaile guztiendako sariak izango dira). 11:00etan San Andresko dendan (Arrasate) elkartuko dira, baina korrika egitera joan aurretik atleta aretxabaletarrak berbalditxoa egingo du; kirol munduan izandako hastapenez, korrika egiteko ohiturez, erabiltzen duen materialaz edota gomendioen gainean jardungo du Antxintxikakoak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKU. BIGARREN MAILA
Mondra-Logroño
Domeka. 12:00. Mojategi.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
Añorga-Aretxabaleta
Domeka. 11:30. Rezola.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aretxabaleta-Ostadar
Domeka. 16:30. Ibarra.
Mondra-Urola
Domeka. 16:30. Mojategi.
Aloña Mendi-Tolosa
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Hernani
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Antzuola-SBB Mutrikuarrak
Zapatua. 15:45. Estala

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Kurutziaga-Eskoriatza
Zapatua. 15:30. Durango.

LEHENENGO MAILA
BideBide-Aretxabaleta
Gaur. 20:30. Tolosa.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Soraluce BKE-Ford Mugarri
Zapatua. 18:45. Labegaraieta.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Izarraitz Tab. Aloña-Urola
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO BIG. TXAPELK.
Egia-Arrasate
Zapatua. 18:15. Egiako.
Bergara-Ordizia
Zapatua. 12:45. Labegaraieta.

SASKIBALOIA

EBA
Estela-Natra Oñati
Zapatua. 18:30. Santander.

LEHEN NAZIONAL MAILA
MU-Padura
Zapatua. 18:00. Iturripe.

SENIOR GIZONEZKOAK
MU A-Bosteko-Irauli
Gaur. 20:00. Musakola.
Soraluce BKE-Errotaundi
Zapatua. 16:00. Labegaraieta.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Eskoriatza-CD Iternacional
Zapatua. 18:00. Manuel Muñoz.

PILOTA

ANTZUOLA
Bi norgehiagoka.
Egubakoitza. 18:45. Udal pilotal

BERGARA
Bost norgehiagoka.
Egubakoitza. 19:15. Udal pilotal

ARRASATE
Hiru norgehiagoka.
Zapatua. 19:45. Uarkape

INFORMAZIO OROKORRA

Ordutegiak
Osteguna 6 [12:00-14:30] [18:30-22:00]
Ostirala 7 [18:30-22:00]
Larunbata 8 [12:00-14:30] [18:30-22:00]

Hirian karpak non egongo diren
Bastiturri Kalea A
Probintzia Plaza B
Aihotz Plaza C
Jesus Guridi Plaza D
Turismo bulegoa ▲
Informazioa jasotzeko eta tiketak erosteko gunea

Informazioa
Gasteiz On • 945 15 02 68 • www.gasteizon.com • www.ardoaraba.com
Vitoria-Gasteizko Turismo bulegoan • 945 16 15 98 • www.vitoria-gasteiz.org/turismo

KALEZ KALEKO IBILBIDEA
ARDOARABA MENUA
GOXO-GOXO AZOKA
BESTELAKO JARDUERAK
ZOZKETAK ETA SUSTAPENAK

ENOBUS ZERBITZUA

Gainera, are errazago jarriko dizugu: autoaz ez arduratzeko, eguneko autobus zerbitzua izango duzu ostegunean, 6an, ostiralean, 7an, eta larunbatean, 8an.
• Irteera Arrasatetik, Garibain, 11:15ean. * Prezioa: 18 euro.
• * Prezioaren barruan sartzen dira joan-etorriko txartela, Ardoaraba taloitegia eta kopa ofiziala.

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA • Telf. 946 071 707 • servitur@stipaisvasco.com

Babesle ofizialak
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz / Vitoria-Gasteizko Udala
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EUSKADI
Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava

Babesle bereziak
EL CORREO
euskaltel
gozatueuskaltel.com

Debagoieneko **PROFESIONAL LIBERALAK**

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KULTURA

Peter Panen magia, euskaraz

- Aitor Garitanok eta Miren Gutierrezek interpretatuko dituzte Peter Pan eta Wendy
- Abenduaren 29an eta 30ean eskainiko dira emanaldiak, Bergarako pilotalekuan

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Gabon garaiko ohiko magiak lagunduta, begiak itxiz gero inoiz hazi gura ez zuen gaztetxoa gure logelako leihoan imagina bagenezake, bere itzalarekin borrokan hasi eta Sekula Betiko Lurraldera hegazean joatera gonbidatuko bagintu, haurtzaroko oroitzapenekin jolasean ari garela pentsatuko genuke.

Alabaina, amets horiei errealitate ukitu txiki bat ematea posible izango du nahi duen orok. Izan ere, Bergarako Musika Eskolak *Peter Pan* musikal magikoa aurkeztuko du, lehen aldiz euskaraz, gainera.

Peter Pan musikalean murgildutako kideak eta Kultura zinegotzia, martitzeneko aurkezpenean. | AMAIA TXINTXURRETA

Herria proiektuan inplikatuta

Bergararrak buru-belarri ari dira hilabete barru estreinatuko den obran lanean. Agertokian 100 bat lagun izango dira, baina proiektuan beste 100 bat kide daude inplikatuta. Martitzeneko aurkezpenean, Leire Iruinek, Kultura zinegotziak, adierazi zuenez, "Bergarako Musika Eskolak herrigintzan egin duen lan apartak ematen dio balio erantsia ikuskizunari".

Musika, dantza eta magia

Darlingdarrak, Wendy-ren logela, krokodiloaren musika, sirenen dantza, indiarrak, borrokako musika... detaile asko ongi lotu beharra eskatzen duen obra da *Peter Pan*.

Zuzendaritza artistikoaz Valen Moñux arduratu da. Bergararrak atzetik dagoen lan izugarria azpimarratu nahi izan du, eta dekoratuak "mimo handiz" egin direla esan. Alex Odriozola eta Esti Alorta artistek egindakoak dira: "Ikusgarriena, zalantza barik, piraten itsasontzia da. 5-6 metroko altuera du eta 12 metroko luzera. Itsasontziaren goialdera 30 bat lagun igoko dira musikalean".

Etxeko detaile bat ere bada dekoratuetan. Izan ere, indiarren kanpamentuko margolana Ramon Arantzabal artista bergararrarena da.

Xabi Torres da zuzendari musikala eta Bergarako Musika Eskolako Irakasleen eta Ikasleen Talde Instrumentalak jarriko dio musika obrari.

> ESANAK
>
> **"Bergarako Musika Eskolak herrigintzan egin duen lanak ematen dio balio erantsia ikuskizunari"**
>
> LEIRE IRUIN | KULTURA ZINEGOTZIA

Abesbatzaren ardura Nagore Sanz soraluzetarraren eta Maria Jesus Ugalde bergararraren esku egongo da eta koreografia, berriz, Irene Hernando eibartarrak gidatuko du.

Lehen aldiz euskaraz

Peter Pan-en euskarazko bertsioak izan baditu euskal literaturak: 2004an, Alberdania eta Elkar argitaletxeek Julen Gabiriak itzulitako bertsioa argitaratu zuten. 2009an, Txalo produkzio -etxeak antzezpen librean aurkeztu zuen *Peter Pan*. 2010ean, ETBko *Ipupomamua* programak kapitulu bat eskaini zion *ume galduari,* Manu Muniategiandikoetxea pintore bergararraren ilustrazioak baliatuta.

Orain, Bergarako Musika Eskolak euskarazko musikala aurkeztuko du lehenengoz. Piers Chater Robinsonen lana aukeratu dute euskarara moldatzeko. Ingelesezko bertsiorik ezagunena da, 1954an Broadwayn estreinatutakoa. Jone Larrañaga antzuolarrak egin du obraren euskarazko egokitzapenaren zuzenketa eta orrazketa.

Sinetsi egin behar da!

Magiaz beteriko istorioa da James Barrie nobelagile eskoziarrak idatzitako *Peter Pan.* Magia horretan murgilduko dira musikaleko aktoreak: Peter Pan (Aitor Garitano), Wendy (Miren Gutierrez), Txilintxo, Michael (Jon Etxaniz), John (Mikel Moñux), Ume Galduak, Garfio (Valen Moñux), Smee (Julen Alberdi), piratak, Tigrelili (Magi Iñarra), indioen buruzagia (Fran Martinez), aztia (Irene Hernando), indioak, George eta Mary Darling (Carlos Etxaniz eta Argiñe Agirrezabal) eta Liza neskamea (Rosa Narbaiza).

Ikuskizun egunak eta sarrerak

Bi saio izango dira: abenduaren 29an eta 30ean, Bergarako pilotalekuan, arratsaldeko zazpietan. 800 sarrera egongo dira salgai, 12 eta 15 eurotan. Astelehenetik aurrera eskura daitezke Bergarako kultura etxean, Pikupe produkzioen egoitzan, Lazkanon, eta Internet bidez.

Iazko toberaren eszena bat. | IRAITZ AGIRRE

Sorpresak, epaiak eta umorea, barra-barra: aurtengo tobera, motorrak berotzen!

Zapatuan lehen entsegu orokorra; domekan, bisita gidatua Bergaran

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Errugabe ala errudun? Ia urtebete igaro da Debagoienako azken toberatik, eta aurtengoa ere badator. Abenduaren 28an, Inuzente Egunean, ohikoa denez.

Iaz Bergarak Arrasate salatu zuen, hazkunde ekonomikoan zentratuegi egon dela-eta, izaera humanistikoagoa aldarrikatuz. Domekan, Bergarako *etxe ederrak* miresteko asmoz, bisita gidatua egingo dute herrian zehar. Herriko Plazan hasita, 12:00etan. Gero, Bergarako Elementalean plaka bat jarriko dute, bertan, argi gera dadin, toberako epaian adierazi bezala eta ikerketa zientifikoek kontrakoa esan arte, bailarako lehen garbigailua Bergaran egin zela. Epailea, fiskala eta abokatua bertan izango dira, ordezkaritza kualifikatu gisa. Ekitaldiaren ondoren, bazkaria egongo da.

Abendua, lanez lepo

Orain arteko lanari forma emateko ordua iritsi da. 25 lagun baino gehiago izango dira eta koordinazioak berebiziko garrantzia hartuko du. Zapatuan egingo dute lehen entsegu orokorra. 10:00etan ETEOn

Jaialdi brasildarra dohainik Bergarako skate parkean

Abenduaren 1ean, zapatua, gaueko hamarretan

M.G. | ARRASATE

Neguko hotzak eta lainoek dakarten goibeltasuna zertxobait alaitzeko, Rio de Janeiroko eta Sao Pauloko samba eta capoeira doinuak eta brasildar giroa izango dira zapatuan, hilaren 1ean, Bergarako Laino skate parkean.

Gaueko hamarretan hasita, 23:00ak arte caipirinha eta janari brasildar dastaketa izango da. Ondoren, 23:45 arte, capoeira dantzen erakustaldia. Eta, gauari amaiera borobila emateko, 23:45ean, musika brasildarra izango da.

Kartela. | IGOR EZPELETA

Sarrera, doan

Lehenengoz antolatu dute jaialdi brasildarra Bergaran, eta "giro aparta" egongo dela ziurtatu dute antolatzaileek.

The Young Wait musika banda amerikarra Bergarako Tartufo aretoan gaur, egubakoitza

The Band, Tom Petty eta Tom Waits musikariengan oinarri hartuta, Chip Kilpatrick musikariak eta Fer Garcia gitarra joleak hegoaldeko rock amerikarra dakarte Alabamatik. *Holy Ghost* edota *Tiny Years* kantuak entzungai izango dira zuzen-zuzenean azaroaren 30ean, ostirala, Bergarako Tartufo aretoan, 22:30etik aurrera.

The Young Wait. | GOIENA

Antzezlan bizia eskainiko du Borobil taldeak. | ARRASATEKO UDALA

Ali Babak bisitatuko du Amaia antzokia

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Ipuin klasikoa antzezlan bihurtua. Borobil taldearen eskutik *Ali Baba eta 40 lapurrak* emanaldiarekin gozatzeko aukera egongo da bihar, 17:00etan, Arrasateko Amaia antzokian.

Eszenaratze bitxia

Anartz Zuazuak sortutako taldea da Borobil. Zuazua bera Asier Sotarekin eta Julen Vegarekin igoko da oholtzara. Arrasate Irratian antzezlanari buruz egin zuen berba Sotak: "Nahiko bertsio berezia da. Ipuin klasikoa izan arren, eszenaratze bitxia egin dugula esango nuke".

Alfonbrak eta aktoreak. Beste objekturik gabe, eszenografiarik gabe agertuko dira publikoaren aurrean. "Aktore lana da garrantzitsuena". Berrogei pertsonaia ageri dira antzezlanean, eta hiru aktore bakarrik taula gainean. "Hasieran zoratu egiten ginen. Jolasaren bitartez aldatzen dugu batetik bestera eta irudimena lantzera bultzatzen dugu ikuslea". Hiru aktoreen interpretazioaz gainera, argiztapen lan bikainak, musikak eta efektuek eszenetan sartzen laguntzen diote ikusleari. "Edozein pertsonari zuzendutako ikuskizuna da; izan ere, ez da haurrentzat bakarrik".

Bigarren liburua aurkeztu du Martin Arriaranek

Z.V.D.M. | BERGARA

Martin Arriaran bergararrak bere azken liburua aurkeztu zuen eguaztenean Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian. *Tributo a Caissa* izenekoa, Arriaranen bigarren eleberria da. Uztailean argitaratu zuen, baina eguaztenean egin zuten liburuaren aurkezpen ofiziala.

Literatura eta xakea nahastu ditu bergararrak *Tributo a Caissa* eleberrian. Haren bi zaletasun handiak dira, eta emaitza interesgarria lortu du gipuzkoarrak. Baina ez da soilik xakea atsegin dutenentzako obra; intriga zein polizia nobela gustuko dutenei zuzendutako lana da-eta misterioz betetako *Tributo a Caissa*.

Martin Arriaran. | GOIENA

Arrasate Literatur Lehiaketak eta Jokin Zaitegi Sariketa martxan

Z.V.D.M. | ARRASATE

Abian dira AEDk antolatutako 26. Arrasate Literatur Lehiaketak. Aurten nobedade aipagarri batekin datoz: parte-hartzea Debagoien osora zabaltzen da adin maila guztietan, eta ez soilik, orain arte bezala, 17 urtetik gorakoen maila.

Ipuina, poesia edota bertso-paperak lantzeko aukera ematen duen lehiaketa horretan, ohi bezala, euskarazko obra originalak eta inoiz saritu edo argitaratu gabekoak aurkeztu beharko dira. Hori bai, gura beste lan entrega ditzake parte-hartzaile bakoitzak. Aurkezteko epea 2013ko martxoaren 22an amaituko da.

Antolatzaileek azaldu dute lehiaketak urtero parte-hartzaile kopuru polita izaten duela, eta 25. edizioko datuek ere hori adierazten dute: 138 idazlan jaso zituzten AEDren egoitzan.

Jokin Zaitegi Sariketa

Jokin Zaitegi Sariketaren 26. edizioa ere martxan dago dagoeneko. AEDk eta Elkar Argitaletxeak antolatzen dute eta Kutxa Fundazioaren laguntza dauka.

Jokin Zaitegi idazle arrasatearraren omenezko lehiaketan, Mo Yan aurtengo Literaturako Nobel saridunaren *Shifu yuelaiyue youmo* ipuin-bilduma euskaratu beharko da. Irabazleak 4.500 euro jasoko ditu itzulpena egiteko. Parte hartu gura dutenek ipuinaren hasierako atala itzuli, eta *aed@aedelkartea.com* helbidera bidali beharko dute abenduaren 20a baino lehen. Eta aipaturiko pasartea Internet bidez ere eskura daiteke: *www.elkarargitaletxea.com/jokinzaitegi*, hain zuzen ere.

Agirreurrreta, iazko irabazlea. | GOIENA

Iazko edizioko irabazlea Juan Mari Agirreurreta izan zen eta azaroaren 23an aurkeztu zuten Donostian sariketaren emaitza. Tomas Tranströmerren *Bizientzat eta hilentzat poema guztiak, 1954-2004 liburua* itzuli du Agirreurretak eta dagoeneko liburu-dendetan dago salgai.



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.

SANER

Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako

Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETA

Maialen Martinez de Zuazo, Arrasateko Mondragon Goieskola Politeknikoan.

PERU ARREGI

Maialen Martinez de Zuazo | Ingeniaritza ikaslea

"Mexiko sekulako esperientzia izan da... kultura eta bizimodua oso ezberdinak dira"

PERU ARREGI | ARRASATE

Maialen Martinez de Zuazok (Oñati, 1988) Arrasateko Mondragon Eskola Politeknikoan egin ditu Antolakuntza Ingeniaritza ikasketak, eta orain, Australiara doa goi mailako ikasketen azken proiektua egitera.

Mexikon egon zara urtebetez. Zer moduzko esperientzia izan da? Berezia?

Niretzat Mexiko sekulako esperientzia izan da. Alde batetik, Arrasaten ikasi dut nik, eta, Oñatikoa naizenez, alde batetik bestera ibiltzen nintzen egunero. Mexikora joan nintzenean, ordea, guztiz independente nintzen, lagunekin nengoen etxebizitza batean... beste gauza bat da.

Bestalde, bertako kultura eta bizimodua oso ezberdinak dira. Mexikarrak, arlo batzuetan, oso mentalitate itxikoak dira. Ikasketei dagokienez ere, sistema ezberdina da; irakasleak norberaren gainean daude beti, eta lan-karga handiagoa da. Horrez gainera, bertako maila sozialen arteko ezberdintasuna oso nabaria da, arreta eman zidan. Maila ertaina, nolabait esateko, ez da ia existitzen, edo behartsuak edo oso aberatsak ikusten dira.

Leku asko ezagutzeko aukera ere izan dut. Bat esan beharko banu, Mexikoko hego ekialdean egin genuen hilabeteko bidaiarekin geratuko nintzateke.

Eta orain Australiara zoaz... Irudikatzen al zenuen halakorik duela sei urte?

Egia esan, ez, 18 urterekin ez nuen horrelakorik imajinatzen. Australia beste puntan dago; beraz, ez zitzaidan errealista iruditukо. Gainera, ez nuen halako seriotasunarekin hartzen, ez zen nire planen barruan sartzen. Agian, etorkizunean hara bidaiatzea posible ikusiko nuke, baina ez horren laster.

Orain gustura zaude egindako aukerarekin? Atzera begiratuta, zer edo zer aldatuko zenuke?

Ez nuke ezer aldatuko. Noski, egia da 18 urterekin ez neukala garbi ikasi nahi nuena. Beti gustatu izan zaizkit zientzia arloko ikasgaiak, eta matematikaren eta ingeniaritzaren arteko zalantza izan nuen azkenera arte. Baina orain hemen egonda, ez nuke ezer aldatuko, bizi ditudan esperientzia asko galdu egingo nituzke. Gauza bat aldatzekotan, agian, lehenago joango nintzen etxetik ikasle-etxebizitza batean bizi izatera.

Eguneroko zaila daukazu? Lanik egiten duzu?

Egia esan, ez. Maiatzean itzuli nintzen Mexikotik eta uztailean udalekuetan egin nuen lan. Ondoren proiektu laburra bukatzen ibili nintzen, irailean aurkeztu nuen, eta orain Australiara joateko eskaintza atera zait. Hori dela eta, ez naiz, ingeniaritzatik kanpo behintzat, askorik mugitu. Pentsatu dut eskola partikularrak -edo ematea, baina, egia esan, horren denbora laburrerako ez zuen merezi.

Oñatiko Film Laburren Rallyan hartu duzu parte. Zelako esperientzia izan da? Zinema gustuko duzu?

Bai, denbora librea daukadanean, zinemara joateko ohitura daukat, edo etxean pelikulak ikusteko. Lehiaketan parte hartzera animatu nintzen lagunekin, eta esperientzia polita izan zen. Kamera-lanak denon artean egin genituen, laburrerako ideiak ere banatu egin genituen, baina nik batik bat bideoa muntatzen bete nuen nire rola. Baina, azken batean, egun ezberdin eta entretenigarria igarotzeko aitzakia izan zen.

Eskubaloian ere ibiltzen zara. Oraindik jarraitzen al duzu?

Bai, eskubaloian jokatzen dut txikitatik, eta asko gustatzen zait. Oraindik ere jarraitzen dut, baina aurten ez dut jokatuko, Australiara noa-eta. Baina bai, jarraitzeko asmoa daukat.

Zeintzuk dira etorkizunerako erronkak?

Epe motzera, Australiara joan eta bertan egin behar dudan proiektua aurrera atera. Bertako taldean behar bezala integratzea espero dut, ingeniaritza arloan gehiago ikastea, nire ingelesa hobetzea... Noski, horretaz gutiaz gainera, bertako lekuak bisitatzeko irrikan nago.

PERTSONALA

Zure herriko txoko maiteena: Aitzulo.
Jaki gustukoena: Pistoa.
Aisialdian? Zinemara joatea.
Musika talde bat: Sorkun.
Bidaiatzeko toki bat: Kenya.
Liburu bat: *El alquimista.*
Kirol bat: Eskubaloia.
Pelikula bat: *La vida es bella.*
Beldur bat: Ikasketen ondoren lanik ez aurkitzea.
Etorkizunerako erronka bat: Benetan beteko nauen lan bat topatzea.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 61 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela egongela zabala, sukaldea eta komuna. 2006an egina. Kiroldegitik gertu. Bizitzera sartzeko gertu. 115.000 euro. 629 42 01 10

Arrasate. Zarugalden. Bi logela eder, egongela zabala, sukaldea eta komuna. Horrez gain, terraza zabala, balkoia, trastelekua, igogailua eta berokuntza indibiduala. Sukaldea eta komuna guztiz jantzita. 2006ko eraikina da. Interesatuok, idatzi zarugalde26@yahoo.es helbidera informazio edo argazki eske, edo deitu telefono zenbaki honetara. 660 20 58 92

Arrasate. Juan Carlos Guerra kalean etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Larrañaga optika gainean. 90 metro koadrokoa. Prezio oso onean. Hiru logela, egongela eta komun batekin. Bi balkoi ditu etxeak. Etxea egoera onean dago eta bizitzen hasteko moduan. 616 50 67 28 edo 665 72 46 12

Arrasate. Krisira egokituriko prezioa. Etxe eraberritua salgai. Altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. Interesatuok deitu telefono honetara. 650 01 05 15

Bergara. Bergarako erdialdean apartamentu berria salgai. Lursail txiki bat dauka. 695 70 11 72

Bergara. Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. Aukera oso ona. 114.000 euro. 618 44 38 44

Eskoriatzan apartamentua. Apartamentu eroso eta eguzkitsua salgai. Prezio negoziagarria. Aukera paregabea. Deitu telefono hauetara. 653 71 53 58 edo 637 42 70 12

Oñati. 68 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Sukaldea, egongela, bi logela eta komuna. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 237.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Egoera oso onean. Inigo. 659 72 06 64

Oñati. Lau logelako etxebizitza salgai Arantzazu kalean. Bi komun, sukaldea, egongela eta trastelekua. Jantzita. Igogailua eta berokuntza indibiduala. Oso eguzkitsua. Prezio interesgarria. Ez du berritu beharrik. 635 06 24 79

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. 95 metro koadro erabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailuarekin. Hiru logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera begira. Hilean 680 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikusteko: *www.euskalnet.net/aguirre*. 630 60 47 75

Arrasate. Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukalde-egongela. Trastelekua. Pertsona batentzat edo bikoteentzat apartekoa. 639 17 49 52

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukalde eta komuna. 606 86 71 97

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan San Lorentzo auzoan. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua, balkoia. Ganbara jabearekin partekatua. 550 euro. 653 70 22 55

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada erdialdean edo gertu. Hiru logelakoa. 679 60 08 48

Arrasate. Etxebizitza txiki edo apartamentu baten bila nabil errentan hartzeko. 653 72 43 19

Bergara. 2 edo 3 logelako etxebizitza alokairuan hartu nahi dut. 600 29 05 24

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. Prezio onean. 671 84 71 71

Bikote euskalduna Arrasaten pisu txiki baten bila. Bikote euskalduna eta arduratsua. Arrasaten pisu txiki baten bila gabiltza. Urtarrilean sartzeko. 636 38 81 00

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. 250 euroan Erguinen logela ematen da errentan. Gastuak erdibana. 610 62 65 04

Arrasate. Erdialdean gela ematen da errentan. 225 euro, gastuak barne. Hobeko emakumea bada. 943 77 13 02

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Iñaki. 608 49 89 93

Arrasate. Logela handi bat emango nuke errentan, Arrasateko erdialdean. 629 80 77 73

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. Wifiarekin. 670 85 86 68

Gasteiz. Logela ematen da errentan. Unibertsitate inguruan. 651 55 36 29

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargarai kalean garaje itxia ematen da errentan. Maniobra egin barik sartzeko modukoa. 679 74 00 61

3. LOKALAK

301. SALDU

ARRASATE
Taberna salgai alde zaharrean.
666 40 65 19

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ABADIÑO
Administraria behar da.
Postuarekin zerikusia duten ikasketak eta euskara beharrezkoak.
administrazioa@gmail.com

402. ESKAERAK

Arrasate. 54 urteko emakumea gertu lanerako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 60 89

Arrasate. Emakume euskalduna garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. Baita umeak zaintzeko ere. 699 54 17 27

Arrasate. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, bai etxean bertan bizitzeko edo orduka, baita garbitasun lanak egiteko ere. 682 31 97 37

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Bergara, Arrasate edo Aretxabaleta. Neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. Gidatzeko baimena eta autoa. 697 20 00 86

Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta. Neska boliviarra gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Egunez, gauez zein asteburuetan. Paperak eguneratuta dauzkat eta esperientziaduna naiz. 618 14 71 34

Bergara. Arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 665 75 41 32

Bergara. Ikaslea naiz eta 15:30etik aurrera umeak zainduko nituzke. 669 17 22 56

Bergara. Neska tituluduna gertu nagusiak zaintzeko eta baita etxeko lanak egiteko ere. 680 77 06 46

Bergara. Umeak zainduko nituzke. 22 urteko neska euskalduna naiz eta umeekin esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara. 681733 61

Debagoiena. Daniela naiz eta pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia handia dut. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Egunez eta gauez lan egingo nuke. 698 79 33 87

Debagoiena. Emakume gaztea eta lana egiteko behar handiarekin, gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. 616 62 85 91

Debagoiena. Emakumea gertu atari eta abarren garbitasunak egiteko. Baita jatetxetan platerak garbitzeko ere. 677 63 20 65

Debagoiena. Emakumea gertu etxe, lokal, taberna eta abarrak garbitzeko, orduka. 696 88 93 73

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Nagusiak zaintzen eskarmenduduna. 688 69 07 28

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egin, plantxa zein plater eta abarrak garbitzeko. Baita atari garbiketak egiteko ere. 686 40 42 03

Debagoiena. Emakumea lan egiteko gertu, garbiketa lanak, etxean bertan nagusiak zaintzen. Fatna. 638 26 98 40

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. 943 76 52 39

Debagoiena. Emakumea prest orduka edozein motatako lanak egiteko. 600 29 05 24

Debagoiena. Gaztea lanerako gertu: peoi lanak, gidari eta abar. 651 55 36 29

Debagoiena. Igeltsari, margoketa zein arotz lanak egingo nituzke. Esperientziaduna. Javid. 632 20 19 41

Debagoiena. Lan bila nabil: garbiketak, banaketak, edo beste edozein lan. 679 60 08 48

Debagoiena. Mutil arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, garbitasun lanak edo beste edozein lan. 633 28 81 24

Debagoiena. Mutil arduratsua, esperientzia eta erreferentziaduna, nagusiak zaintzeko gertu. 633 28 81 24

Debagoiena. Mutil euskalduna, erizaintza tekniko osagarrietako tituluduna eta esperientziaduna, etxetan nahiz baserrietan dauden nagusiak zaintzeko edo paseoan ateratzeko gertu. German. 619 08 40 08

Debagoiena. Mutil gaztea lan egiteko gertu: tabernak eta elkarteak garbitzen edo pertsona nagusiak zaintzen. Etxeko lanetan aritzeko eta elikagaiak maneiatzeko ziurtagiria. 622 77 60 75

Debagoiena. Mutil gaztea, arduratsua, lanerako gertu. Nagusiak eta ospitalean gaixoak zaintzen edo garbitasun lanetan arituko nintzateke. Etxean bizi izaten edo bestela. Wilber. 618 85 12 85

Debagoiena. Mutila gertu harategian lan egiteko. Baita sukaldari edo zerbitzari jarduteko ere. Nagusiak zaintzen ere arituko nintzateke. 647 15 18 23

Debagoiena. Mutila gertu lan egiteko, nagusiak zaintzen, garbiketa lanak. Arduratsua eta esperientziaduna. Intiaz. 632 18 53 17

Debagoiena. Mutila gertu lanerako: harategi laguntzaile eta sukaldean lagundu edo garbiketak egiten. 610 91 33 40

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak edo menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko. Geriatrian espezializatua. Arduratsua eta berehala hasteko moduan. 634 75 52 61

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientzia duena lan bila dabil. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izateko gertu nago edo orduka lan egiteko. Deitu 633 49 62 53 zenbakira.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Orduka lan egiteko gertu eta pertsona nagusiak pasioan ateratzeko. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan zaintzeko edo pasioan ateratzeko. 626 35 66 90

Debagoiena. Neska arduratsua gertu ume edo nagusiak zaitzen zein garbitasun lanetan jardunteko. Etxean bizi izaten zein bestela. 632 09 72 93

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, etxean bertan bizi izaten zein bestela. Esperientzia eta erreferentziaduna. 617 64 08 48

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, sukaldeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko gertu, etxean bertan bizi izateko ere bai. 722 26 59 40

Debagoiena. Neska euskalduna etxeak garbitzeko, ospitaletan gauak egiteko edo umeak zaintzeko gertu. Kotxea daukat. Disponibilitate osoa, esperientzia eta informeak. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu etxean laguntzeko, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetan jardunteko. Dendari ere bai. 630 20 12 03

